

Maiatz.

maria mestoy la
dirarrosagara
i itxarobordajo
ncasenavejeanl
ouisdañant eña
utetxamendi luc
ienetxezaharr
etapiarreshegu
itodamikelhiri
parrandanielland
artbeñatohart
zabaltxomippe
itlenmagipelo
tpiarresxarrit
onauxtin zamor
dzigor.

2

nun zer

2

- 2 Daniel LANDART : Monzonen makila
7 Auxtin ZAMORA : Ur fedez
8 Auxtin ZAMORA : Hiltzearen hitzak
9 Mari AMESTOY : Lau lore burua
9 Mari AMESTOY : Gakoak
9 Mari AMESTOY : Orroitzapen galduak
10 Misilav SAVITCH : Otso emea (itzulpena : B. OYHARTZABAL)

14

- 14 Pierre REVERDY : Distirak (itzulpena : M. BOVARD)
15 ZIGOR : Nafarra
15 ZIGOR : Egiak
16 Ladix ARROSSAGARAI : Kondairari barrikadak
18 Piarres HEGITOA : Zer giren bestenez
19 Itxaro BORDA : Metropolis
20 Itxaro BORDA : Makaoko suge
21 Itxaro BORDA : Jackson Pollock Parisen
23 Itxaro BORDA : Adiskideak
24 Itxaro BORDA : Geofisiko I
24 Itxaro BORDA : Lights time
25 Itxaro BORDA : Emazte arruntaren koplak

26

- 26 Eñaut ETXAMENDI : Gizonak
30 Mayi PELOT : Semeak
31 Mayi PELOT : Feed back
33 Mikel HIRIBARREN : Etxebartarrak
35 Jon CASENAVE : Amoros Gaixoa
38 Jean Louis DAVANT : ITSASOAK IRAULTZAN

61

- 61 Piarres XARRITON : Manex HIRIART-URRUTY apezaren lau gutun
Piarres BROUSSAIN adiskideari
67 Txomin PEILLEN : Mintzaje ta eskola ziberoan (segida)

Monzonen Makila

Igande arratsalde bat zen, bezperetarik landa. Barne hau (1) bera mukurru betea. Haurrak, aitzintto honetan, jostetan ari..... emazteak kalaka gorrian, eta gizonak, gizonak beti bezala, berena gogoan... Eta kasik ez irudika, denak aiduru, zain, besta noiz hasiko zen ote... Zeren, antzerkia, guretzat eta hemen ziren guzti-entzat, besta bat bait zen, besta bat gaitza.

Taula gainean, ahantz batzu entzuten dira, bai eta, joko -larien urrats pizuak. Pizuak eta zaintsuak. Hiruzpalau aldiz oihala igitzen dute... Zuloño batetatik, begi haundi bat ikus daiteke, so eta so. Haren ondotik beste bat... eta segur naiz zuloño horrek, lagunak ba dituzkeela...

Bat batean, zura makilaz jotzen dute, baina arrabots haundi horrek ez ditu jendeak berehala ixilaraziko, nahiz emazte zenbat segidan hasten diren: "Xo, ixo, xo... orai hasiko baitira" ... ondoxean daukadan neskato punpulina batek aldiz, bere irri kokorozka ezin dezakelarik inondik ere trenka. Beste panpako batzu beharko dira beraz, ikusliarren eztiarazteko, eta azkenean, denak kasik jume-jumea jarri direnean, oihala berriz ere igitzen da, eta erdi-erditik, brix, jaun bat agertzen zaigu.

Jaun bat, adin batetako jaun bat-nik orduan 16 - 17 urte nituzkeen-eta horra jaun hori, eleketa eta eleketa, apez bat bezain ongi mintzo, edo berdin hobeki. Funtsean, aitortu behar dut, ordu arte, ez nuela inoiz, apez ez eta misiolariez. Beste, norbait, horrela mintzatzen ikusi... Heldu zitzaion elea, heldu, iturritik ur garbia bezala, eta bestalde, esku eskuinean zeukan makila, goiti eta beheiti bait zerabilen, hitz dizuet, tanpez lilluratua gelditu nintzela.

Nor zen delako jauna, laster jakin nuen, ezker aldean neukan andre batek bere alabari erran bait zion: "Hori uxu, Monsieur de Monzon... komediaren egilea..."

(1) Heletako "patronage"-ko sala

Monsieur de Monzon

Monsieur de Monzon, ikusi banuen ikusi, eta aditu banuen aditu, parabolaka mintzo..., zin dizuet, haren baitatik jalgitzen zen garrak, gorputz guztia inarrosiz, bihotza kaldan ezarri zidala, kaldan, su hartzerainokoan!

Eta ez otoi eni galda, egun hartan, Heletako antzerkilariek zein obra eman zuten, ez eta nola ari izan ziren; antzerki denbora guztian ez bainezakeen de Monzon Jaunaren itxura gotik ken. Ez, haren itxura, ez eta haren makila...

Zergatik hainbeste jo ninduen,xixtez,ez nuen konprenitu. Baina geroztik,geroztik bai, nihauren gostuz zilatu dut , ordu arte,ni baitan,gorde-gorderik neukan teatrorako gutizia,tirria de Monzon Jaunari esker,bat-batean iratzartu zela . Bat batean eta behin betikoz !

Eta biharamunean ez bada, ondoko egunetan hasi nintzen ni ere antzerki idazten...edo bederen antzerki bat idatzi nahiz.Ez bait da batere berdin...

Hain xuxen,ondoko urtean,Heletako taldeak,antzerki zein-gehiagoka bat muntatu zuen.Parte hartu nuen.Bigarren saria irabazi.Epaile edo jujeetan,de Monzon Jauna barne zen.Beraz , ene lana irakurri zuen.

Handik laster,uda hastean,"Euskararen Eguna " ospatu genuen.Igande goiz batez,hogei ta hamar lagun Donibane Lohitzunera joan ginen, eta karriketan eskea egin.Jendeak,brauki eman zigun,eta sos kontatzen ari ginela,de Monzon Jauna ere,gutar tera etorri zen.

Diru kontuak beregisa utzirik,alegia deusez,ondora joan nitzaien,eta ez baita herabea bezalakorik batzutan ausart agertzeko,nolabait solasean hasi ginen.Hasian hasi,eta teatroa biziki maite nuela aitortu niolarik, halako so amultsu batekin begiratu zidan,izena galdatu,sorbalda jo,eta haren etxeko atea zabalik nuela erranik,urrats haundiz abiatu zen beste norbait agurtzera...

Atea zabalik

Atea zabalik...Jakin nuelarik xuxen,de Monzon nor izana zen -28 urtetako deputatu eta ondotik Euskal Gobernuko minixtro-minixtro ohi batekin luzaz solastatzen ahalko nintzela pentsatzeak berak, burua doi bat burzora arazi ziola nintzen loborari seme, inprimeriako aprendiz gazteñoari, ez dut errate beharrik. Eta horra duda-mudak haste: "Joan behautu, ez duta"... Eta azkenean,ni joan.Eta "Mende Berri"de Monzon egoitzako atea jo.Atea ireki orduko,ongi etorria bero,hitza leun,eder eta ugari,gogo-bihotzen altxagarri,zoragarri...

Hamar,dotzena bat aldiz,egonen naiz horrelaxe de Monzon-ekin buruz-buru,arratsalde osoak,gure kezkek,buru hausteak,griñak,penak bai eta esperantza edo itxaropenak,xeheki erabiliko ditugula eta aldi oroz,ikaragarriko kemen eta lanerako gutizia haundiarekin jalgiko naiz de Monzonen etxetik.

Eta segur naiz,ezagutu duten guztiek gauza bera erranen dutela:ba zekien de Monzonek,beste iñork baino hobeki kuraia ematen,kuraia eta Euskadi berreuskaldundu baten alde bermatzeko nahikaria zortarazten.Profeta bat zirudien.Profeta bat zen.

Baina ez zuen, ororen buru, beste munduko gauzarik aipatzen, ez eta, mirakuilurik hitzematen, ez ; bere makila ferratua altxatuz, erraten zuen gauza bakarra, hauxe zen : Euskadi eraiki behar genuela !

Euskadi eraiki

Euskadi eraiki. Bi hitz horiek, hamar, ehun, mila aldiz errepikatu dizkit, azkenekotz, nintzen gaztearentzat, kasik nardagarri izaterainokoan... Zeren nik, gaixo inoxentea, uste bait nuen, Euskal Herria egun batetik bestera eginen zela, horrelaxe, sobera pairatu eta higatu gabe, zerutik eror liratekeen opari baten pare ...

De Monzonek haatik, bestela zioen. Eta ba zekien zer zerasan. Hark, esperientzia ba zuen. Hark, eta haren gudari lagunek, zerbait-zerbait ikusirik eta jasanik ba zuten. Nik, deus.

Baina, Donibane-Lohitzuneko bere jauregian, erdi-gordetik, penaz eta dolorez, iragan denborak gogoan egoteko partez; Ipar Euskal Herrian sortzera zihoan abertzaletasunaren lehen hazien eraile izan da: hala-nola, Itsasuko Aberri Egunetara etorriz, Enbata Oldea sustatuz, bertsulari eta euskaltzale guztien adiskide bilakatuz, eta bereziki, teatro sailean bere ildoa irekiz.

Eta gure artean genuen, Heletan, 1966-eko Ekainaren 5-ean, Trinitatez, iparraldeko antzerkilariak lehen aldikoz elkarretaratu ginelarik, batasun berri bat egin nahiz. Gure artean zen ere, Baigorri, "Antzerkilarien Biltzarra" sortu zen egunean, 1967-eko maiatzaren 27-an.

Bestalde, errefuxiatuen laguntzeko "Anai artea"ren bidez ibili dituen urrats guztien aipatzea luzeegi litzateke; eta nola ahantz, Baionako Katedralean, bere lagunekin, egin zuen gose greba dorpea?

Bai zinez, guretartua zen errotik. Ipar Euskal Herriko arazoa ongi ulertua zen. Beste edozeinek baino hobeki, de Monzonek, hegoak eta iparrak osatzen duten Euskal Herria, Euskadi, bere osotasunean ikusi du, sentitu, eta sei probintzia zaharrak ezin batetaratuz, zazpi ahalak egin ditu.

Makilaren bi puntak

Eta Telesforo de Monzonez oroitzean, begien bixtara datorkit ere haren makila... Beti berekin zuen makila... *bi buruetatik atxiki duen makila*... Oh, badakit, badakit segurki, ateraldi hau gaizki hartua izan daitekeela, baina berehala argituko dut xuxen zer erran gogo dudana.

Mizpiraz egin makila, Xuberotarrek makila gorria deitzen duten euskal makila, benetan ongi asmatua da. Mendiz-mendi edo alorrez-alor zabiltzalarik, zure lagun segurrena, sustengu hobereena: makila duzu.

Bermatzeko. Nekaduraren haizatzeko. Bai naski, goxoa da esku ahurrean makilaren buru leuna. Eta inoiz harriskuan bazaudu, ez duzu beldurtzekorik: punta hor duzu, bere ezten burdinazkoarekin. Zaintzeko. Etsaien urruntzeko...

Horra beraz zergatik de Monzon Jauna bere makilaz behar bezala baliatu den. Berez, gizon ona zen, baina ona izateak ez du erran nahi denak onartu behar direnik. Eta Monzonek ez du onartu euskal populua, gure populua, zapaldua, zatitua, ukatua, umiliatua, trufatua izan dadin! Makila baten pare, ona agertu da baina ber-denboran bortitza!

De Monzonek, makila bi buruetatik edo bi puntetatik fermu atxiki duela erraten dudalarik hauxe adierazi nahi dut: bere makila Euskal Herriari konparatzen zuela..

Punta batetan: *hegoa*, bere Nafarroarekin . Beste puntan : *iparra*. Gu: Hemengoak.

Punta batetan : *atzoko gudariak*. Espainiaren aurka, gudu bat galdu duten abertzale zintzoak, bai eta ... geroztik etorriak. Beste puntan : *gaurkoak*. Harmen bidez segitzen duten burrukalari bipilak.

Punta batetan: *egunero euskaraz mintzatzen* direnak, euskara biziartzten dutenak, baina horretaz ez dutenak axolarik, are gutiago kontzientziarik.

Beste puntan: eusko direla ba dakitenak, *kontzientziatuak*, eta "je suis Basque" edo "Soy Vasco", "Soy Vasco" aho beteka derasatenak, baina euskara ikasten hasteko momentuan aitzakia merke dutenak.

Punta batetan: *nazional* arazoa baizik ikusten ez dutenak. Beste puntan: *denak, sozial* arazo bakarrera biltzen dituztenak..

Puntatik puntara, ez dut zerrenda hau luzatuko. Alabaina, ez duguia, zorigaitzez, denek ezagutzen? Eta hori ikusirik, uste dut, gaurko euskal politikaz erran dezakegula, de Monzonek, frantsesez, antzerki entsaioetan maiz errepikatzen ziguna zinez, "ça ne passe pas la rampe", "ça ne passe pas la rampe"!!!

Bizkitartean, elkarretarik hain urrun direla irudi duten bi punta horiek, ororen buru, elkarretarik biziki hurbil dira.. Makila *beraren* bi puntak bait dira. Makila berarenak ! Nahi ala ez ...

Eta Monzonek, bi puntak elkarri lotu nahi izan ditu ... Batasuna egin. Herri Batasuna ...

Politika eta artea

Baina, ez nuke ahaztu nahi, gaur, Heletan, Monzon, antzerki gizonari egiten diogula omenaldia, ez eta politika gizonari.

Makila beraren bi puntak hor ere...

Monzon, politika gizona bat zen, ba zuen ere, eta nola! artearen maitasun izugarria. Errotik edertizalea zen. Bestalde mintzatzen zelarik, begiratzen zuelarik, kurri zabilalarik, ba zuen halako artista aire bat... Ez bakarrik... airea. Artista bat zen....

Maite zuen, oroz gainerik, lan ongi egina. Lantua. Olerkiak edo antzerki bat idazteko, egunak, hilabeteak, urteak pasatzen zituen. Hitzekin jostetan. Hitzekin jostetan edo idazkiari soinu berezi bat ematen dion hitz egoki hura ezin aukeratuz. Eta behin baino gehiagotan, berak aitortu dit, idaztea asko gostatzen zitzaioela. Funtsean, nori ez?

Lan ongi egina maite zuela...,berarekin antzerkilaritzan ari izan garenok,hori,denek ba dakigu. Zenbat, zenbat aldiz ez ditugu, lerro berak, jestu berak, urrats berak berriz hasi behar izan ? Guk uste ongi zela eta harentzat sekulan ez aski . Beti ikasten, beti trebatzen, beti hobetzen aritzen, horra zer den alabaina, artea...

Ikusliarrak ez dezake inondik ere asma zer lanak ibili behar diren,obra bat,doi bat bederen,plantan agert dadin....

Eta arte mailan,guk Euskaldunok,ba dugu non zer ikas,non zer treba...Maiz,lan luze eta neke bat egiteko partez,gure ekin tzak ez bait dira tarrapata lan arrunt batzu baizik...

Ah,Monzon bezalakoak bagina...

Lepoan hartu ta segi aurrera....

Nahiz ez dugun,hau edo hura bezalakoak izate beharrik.I-
zan behar dugu,guhaur!Garen bezala...Bakoitzak,bere saila era -
man behar bait du,berak senditzen duen eta ahalik hobekiena..

Eta mintzaldi laudoriogarri honetan,goraipatzen badut e-
re Monzon;ez dut ahantziko,gu biak ere, alta, makilaren, makila
beraren bi puntak ginela

Hura,aristokrata,bere bizi guztian egundaino lanean ari
izan ez dena,eta ni,xumea,hamalau urtetako aprendiz sartua, eta
oraindik beti inprimerian lanean ari...desberdintasun haundiago-
rik izan daitekea ?

Bizkitartean,beste erresuma bateko semeak izan bagina,i-
noiz elkartuko ez ginenak,Euskaldunak ginelako *abertzaletasu-*
nak bildu gaitu eta fede berarekin bermatu gara antzerkiaren e-
ta gure Euskadiren alde.

Ez ginen segur beti ados,eta ez dut inoiz Monzonez mito
bat eginen; baina atsegin minez parte hartzen dut antzerki gi-
zonari egina zaion omenaldi honetan. Horrelako bat zor genion ,
gutienez.

Baina, Monzon Jaunari eginen diogun omenaldirik hoberena
ederrena,*egiazko omenaldia*, Euskal Herriarentzat eten gabe bur-
rukatzea izanen da. Burruka hori izan bait da haren bizi guzti
ko oinarria.

Eta beraz,bakoitzak bere makila hartu eta segi aurrera !

*Martxoaren 14ean, Heletan, Telesforo
de Monzon-en oroimenez, Antzerkilari-
en Biltzarrak egun bat ospatu zuen.
Karia hortara, Daniel Landart-ek hitz
hauk erran zituen.*

Ur ferdez.

Neure haurtasuna
ezin desesteka :
ez dut deus maitatzen ahal mundu huntan,
neure haur denbora baizik haurñoetan .

Ur ferdea belar argien artean
ttinttaka ttinttaka sortzen zengoizean,
nimiño zintudan,
lur huntarat eman.

geroztik ur ferdez ditutzu begiak,
goizeko iduzkiz ezpainak ximurrak,
ez dakit nun naizen,
orenak zer diren.

Atzo itaitzuren ur edale-nintzen,
plazetan nituen eskuaz zabaltzen,
denetaz trufatzen,
deusez axolatzen.

Orai aldatu ditut alabideak, .
bai bertzeri utzi karriken ezkinak,
amoratu nauzu,
ta bertzelakotu.

Kalapita beltzak, zeruko urdinez
nauzkitzu beztitzen, hedoi kolorez,
laidoak gordetzen
ta ahantzarazten.

Kristailen argiak ur inozentzian,
dirdirarazten zuk nauzkitzu lezetan,
Ez dakit nor naizen,
egintzak zer diren.

Atxemanen nauzu, bihar, iatzartzean,
kasik lo kuluxkan zure bazterrean,
ez neri begira,
zoaz aintzina,

sortaraz dezazun, nitaz oroitzean,
nola ur ferdea belarren artean :
haurño bat freskoa
zu bezalakoa.

hiltzearen hitzak: hil ezkilaz.

SENPERE HERRIAN,
HIL-HERRI BIDEAN,
HILTZEAREN HITZAK
DIRA HIL-EZKILAK :

"ni nauzu hiltzea zure suntsizale,
zaren guziaren lur bilakatzale.
Ez krizkola neri kaien kurrinkarik,
ez huia zakurrik neure gibeletik.

Zabiltza oraino lurraren gainean
xixtuz eta irriz, omore onean,
eginen dautzut "hau" ohart gabe batez,
goiz huntan ez bada sarri aratsaldez.

Zaitezen "pelele" edo jauregidun,
zaitezen bakarrik xinaurri bizidun,
ezarriko zaitut luze bezain gogor,
etzanik, hobendun, odol hatsez agor !

Zapartatzen dira zeruko izarrak,
desegiten ere amodio herrak,
inguratu duzu zure eremua
gate xixtadunez, gaixo muñuñua !

Senpere herrian, hotz, ixilik daude
harri azpikoak, denak buztinkide,
Zu, lur gainekoa, ez zare ixiltzen
"zer den berpiztea" duzula galdetzen.

Hazia hila da berriz sortu arte,
sortu, haunditu, hil ... ta berriz haste.
Zoaz, ahoz gora lur bizi barnera,
noizbait haur bezala sortuberritzera.

Bi portalet haundi soroen erdian,
berritz etortzeko bidexka ondoan,
lau murruxka xuri, zerua teilatu :
hor dut atxikitzen zuretzat SORLEKU "

1977. ko ABENDUA

lau
lore
burua

Lau buru-lorea
Lau-lore
Lau-buru
Lau, lau
Lore-buru-zagi
Lore-lei
Lore-gorri
Lau-garren
Lore-gorria
Lau-buru
Euskadiko
Baratze
Gorri
Lau-buru, lore gorria
Lau-lore-burua

LAU LORE BURUA GAKOAK ORROITZAPEN GALDUAK MARI AMESTOY

1972. ko MAIATZAREN 13. an

gakoak
ene eztiari

Nungo itxasoan
Zoin leizetan
Dira gordeak
Zure biziaren
Gakoak.

Nola jakin
Zure begien
Sekretuak.
Nola entzun
Zure ezpainen
Ixiltasuna.
Nola ideki
Zure esku
Eztiak.

Nungo itsasoan
Zoin leizetan
Dira gordeak
Zure biziaren
Gakoak.

orroitzapen galduak

1981. ko UDAN

Zapata ttipi pare bat bide bazterrean; Aitatxi pipa itzalia hortzen artean, belarrean jarrita; neskatto bat zangoak putzuan sartuak, irri karkailaka:

" Aitatxi, aita! ", gona gerriraino bustia errekan jautzika.

Goizeko iguzkia gora, gora zero argian, ainarak itzulika gero ta beherago, euria egingo ote ?

Orga baten karranka bidexkatik behera : " Ama, ama, ama! " Neskaren ama kexu : " Bainan, aita, nolaz izten duzu haurra putzuan jostatzera ? "

" Utzan neska, bero egiten din, egun ez dun hoztuko. "

Gibeleko atetik amatxi ateratzen da bere zaia luze tti-tadunean, galtzerdi beltz, espartin beltz, moño xuri: " bazkaria prest da. "

" Lehenik orga deskargatu behar dugu, ortzantza egin baino lehen, arno trago bat ekartzazu otoi, ama. "

Otso

Herritar zaharrenen oroimenez sekula ez ikusi elurte nasai ohigabekoek gure mindietaraino jin ikusliar eta ibiltariak herritik aizatu zituzten, beste bisitari desiragarri ez ziren batzu eratorriz ordean : otsoak.

Egunez egun elurrak elurrari, maluta pizu tinkoen erauntsiak ez ziren atertzen. Zerua, belaunikatuz bezala, lurre-raino jaitsi zen harekin bat egiteraino. Arrats-goizak ere halaber juntatzen ziren ezin urratuzko iluntze gris triste goibel batek, oro estaliz, biltzen, inguratzen, setiatu bezala atxekitzen gintuela. Elurraren zuriaren historak bazter guztiak berdintzen zituen. Laster leihoetaraino goititu zen elurra, zedarriak, hesiak, lur azaleko zimur guziak, azpian ehortzirik zeduzkala. Barruki edo putzu, urtegirainoko bidexkarik ez zitekeen ireki: ura atera denboran, abereei hazkurria eman orduko, elurrak gure hatzak ezabatuak zituen. Giza marka guziak desagertarazten zituen mihise zabal isiltasunez beterikako hark.

Elurtea doi bat ematu zelarik, argizagiak argitu lehenbiziko gauean, agertu ziren otsoak. Gau hormatuan arditegi-etaraino hurbildurik, gure artaldee jazarri zitzaizkien, anitz ardi ebatsiz, beste hainbeste sarraskituz. Ondoko gauean ber gauza. Gure zakurrek deus ez zezaketen egin. Atalatzetan ikus zitezkeen, izituak, barnera sartzera utz genitzan etxeko atea aztaparkatzen zituztela. Baño baizik ez zen otsoei olandartzera ausartatu, damu izateko denborarik gabe xirtxikatua izan zen.

Hau kalamitatea gertatzen zitzaiguna ! Hartarik begiratzeko herritar guziek bat egin genuen. Lakioak, tranpa-ziloak egin genituen, sare arteak hedatu, inguru guziak segadaztatu, zenbait bildots pozoindatu eta han hemenka barreiatu. Horien guziengatik, ordean, ondore on guti. Ehiztariak, beren arma zaharrek, ez zuten hoberik, barrandan zeuden tokietarik urrun zegozkien otsoak, hala nola deabrua gurutzifikatutik. Usu, zelatan egon ariaz, loak garaitzen zituen, eta pizti basa izigarriak hurrantzen zitzaizkielarik, hotzak hebaundurik, gaizki begizatzen eta tiratzen zuten.

Aitor dezadan. Otsoek ehun bat ardi ohoindu edo sarraskitu zizkigutelarik, guk haiari egin makurren kontua zinez hurria zen. Orotara lau otso, zaharrean ezinduak, eihartuak, azken ukaldia neguak baino gizonak eman geniezaien nahiago ukan zuketena. Tropaburuak edo hoin lanjeros izan zitezkeen otso bakar-tiarrak, herria inguratzen zuten mendi kasko elurrek hartuetan, egon zeuden, gau guzia, gau guziez, geldigabe uhurika, halako gisaz non lotan ere, haiek ametsez bezala adituz, dardaraz baikeunden, beldur ikarek gorputza aldean beste zeharkatzen zigutelarik.

Goseak hortaratuak, laster ardiei ez ezik, jendeei ere jazarri zitzaizkien otsoak. Gau batez, herritik bazter bera berraturatu zen eiherazaina zarrastatu zuten, deus ere ez baitzen ondotik gelditu gizagaizo hartarik, haren makila eta eskala-poinak salbu, eta odol hormatu poxiño bat ere.

Halaber piska bat geroago, baina egunaz aldi hartan, gizon gazte bat xehatzer zuten. Zuhaitz batetara iganez itzuri zitzaizkien hura, eta han egon zen egun guzia, hotzak hil hurrana, mendia-aren bakartasunean norbait etor zekion alferretan helka. Otsoak

Emea

itzulika zebilzkion azpian, helderra zeriela, zuhaitz trun-koari atzaparrez, hortz eta haginez, errabiazko jauzitan lotzen zitzaizkiolarik. Ezin ihardukiz, gizon gaztea etsitzeari zegokion, noiz eta ere arropen kentzeko eta lurrera, otsoen artera, haien erortzera uzteko ideia gogoratu baitzitzaion. Otsoek arropa oihal lodia usnatu zuten, beren artean gerla gorrian tiraka erabili, azkenean xehakatu, purruskatu, zirtzilkatu baitzuten. Ondotik lekuak hustu zituzten. Gaixo gizona, harbat iduri, biluz gorria, beldurrak beretua, herrira herrestan jaitsi zen. Hezurretaraino hormatua, bi astez erdi hilik egon zen, herriko belargilerik hoberenek beren sendagarriak eradaten zizkiotela.

Anitz jende izan zen ondoko egunetan halaxe atakatua, baina suertea lagun, denak bizirik atera, edo gizon gaztea bezala zenbait zuhaitzetara iganez, edo su bat pizturik, edo puñalarekin batean eskumenean zedukaten sardeaz otsoen gibelaraztez.

Egunak joan, negu hondarra jin zitzaigun. Elurra jada gune apalenetan urtzen hasia zen eta ertaroa etorririk otsoak, naturalezak hala manaturik, mendira erretiratzera abiatzekotan ziren. Hain zuzen ere herrian egon ziren azken egunean agitu zen, denen gogo-bihotzetan itzaturik geldituko ziren gertakari hainbeste urteren buruan ahantzirik ez gaudenen hastapena: iturriaren ondoan herriko neskatxarik ederrena hartu eta berekin eraman zuten. Etxalde aberatseneko alaba bakarra zen; haren aita uholdeek gizendu pentze, soro, bazkaleku herriko ederrenen jabea zen; sagardi hoberenak ere bereak zituen.

Iturrian gizon atsegabetuak pitxer jaurtikia eta mendi elurreztatuetan galtzen ziren otso izigarri baten hatzak baizik ez zituen aurkitu. Odol markarik zen mendrenik ez, ordean. Herri guzia asaldatua zen. Miaketa gaitzak egin genituen, orok parte hartuz. Hezur bat, xerlo edo ile batzu bederen atzeman beharrez bazter, zoko-moko guziak ikertu genituen. Alferrik. Iduri zuen mirakuiluz bezala joan zirela otsoak. Haizegoa altxatzearekin gesalpena hasi zen, hatzak ezabatuz. Zakurrak, udaberriak berpizten zituen landareen usainak mozkorturik, otsoen urrina ezin ezagutuz, nora ezan itzulika zebiltzan.

Azkenean, hilabete baten buruan, esperantza galdu genuen herritar eta ahaideen baitan neskatxaren oroigarri izan zitekeen deus hark utzirik atzeman geniroela.

Ondoko negua ez zen hain bortitza izan eta otsorik ez zen agertu. Oro ahantzixeak ziren, gertakari hits deitoragarri haiek, gesalpenak aitaz beste herritar guzien baitan urtarazi balitu bezala. Etsiturik aita penatuak hil herriko sartzean berea harri bat, alabaren oroigarri, altxarazi zuen, haren ondoan hiru pinu gazte landaturik.

Hala ere, bigarren udazkena bururatzearekin aro gaixtoa heldu zirela oharturik, inkaskako apailuetan hasi ginen. Itogietako hesiak goratu eta azkartu genituen, zakur lodigo, otsoek nekez beldur zitzaketan batzu ekarrarazi genituen, eta idi pare batetan truk bizpahiru karabina berri erosi.

Etortzen bazitzaizkigun prest geunden otsoei buru egiteko, ber-
ritz herrira jiteko gutziaren haien baitarik behin betikotz
kentzeko.

Lehenbiziko elur jaisteak iragan ondoan gure oihan
guardiak berri bat bitxia ekarri zigun, sinetsi ez bagenuen ere,
harritu gintuena. Otsoek, oihanean zebilela, inguratu omen zu-
ten, eta fusilaz armaturik izanarren, harenak egin omen zukeen,
hara hurbil ezteiliar talde bat sekulako arramantza eginez pa-
satu izan ez balitz. Besta egile haien oihu, kantu, eta zinba-
lotsek ihes joan arazi omen zituzten otsoak. Baina ez zen hori
hats bahiturik utzi gintuen berria. Oihan zainak alabaina,
otso handi baten ondoan bi urte aitzinago animaliek ohoindu
ziguten neskatxa ederra bizirik ikusia zuela erran zigun. Otse-
me itxura harturik eta lau hazka kurriturik ere, segur eta fi-
da zen gure oihan zaina, herriko neskatxa zela; otsokumeak ba
omen zituen inguruan, haren umeak itxura guzien arabera, zeren
gizaurpegia baitzuten. "Ederra da oraino, ororen artean ederre-
na" zerasan oihan zainak. Herritar guziek, gure gizona, izial-
durak zentzua jorik arrunt tetelatu zitzaigula uste ukan genuen.

Handik laster baina, horiek oro oihan zainak asmatu e-
do amestu ez zirela egiaztatu genuen. Otsoen artean entelegua
zuen norbait bazebilen dudarik bat ere gabe: arditegietako ateak
irekirik aurkitzen genituen, arteak deseginik eta beti hutsik.
Halaber lakioak desestaliak izan ziren eta lurrez betatuak;
goiztirietan bildots pozoinatuak atalatzetan atzematen geni-
tuen, haien ondoan gure zakurrek azken hatsa zematela. Gutik
egin zuen ez baikinena herritarren artean joka hasi, susmoa har-
tu baitzuten zenbaitek, gure artean norbait bazatekeela otso
hilketaren galaraztera deliberatua.

Baina arditegien ondoan, otso marka bezainbat giza mar-
ka ziren hatz batzu ikusi genituenean, oihan zainak errana si-
netsi genuen. Otsokume bat hil genuelarik, azken dudak joan
zitzaizkigun. Alabaina hortzek ezik, otsokumearen begitarteak
gizaurpegia zirudien, aitzineko zangoak ere gure eskuen iduri-
koak zituen.

Izigarrikeria horrek herri guzia asalaturik jarri
zuen. Jendeak, orok hobenduntzat zedukaten neskatxaren aita gai-
xoarengana galdezka joan ziren. Gizon zaharrak, bere burua zu-
ritu beharrez, ahal bezala ihardesten zien, tristerik, baina
begien dirdirak salatzen zuen esperantza berri batek zuzpeltu-
rik ere; haren alaba maitea bizi zen oraino, salba zitekeen. Zi-
tuen ondasunak oro hitz eman zizkion, otsoak azkeneraino hilik
alaba ekarriko zionari.

Orduan ezagutu genituen denborarik larri eta latzenak.
Otsoek gain hartzen ari ziguten. Gure fusilez beste deusek ez
zitzakeen gehiago izi eta gibelaraz, ez oihuek, ez puñalek, ez
bertza joiteek, ez eta suak berak ere. Sugarretara hurbiltzen
ziren, batere beldur gabe, beren bihotz hormatua eta zango
karrointzatuak berotu gogo bailituzten. Bazirudien giza jaki-
tatea beretu zutela.

Inor ez zen bakarrik etxetik kanpora bonturatzen; bi-
razka, gero hirunazka, laster hamarnazka, genbiltzan, sekula
ez karabinarik hartu gabe. Gauetan, nork bere etxean gakoturik,
otsoen uhuriak entzuten genituen, iduritzen baitzitzaigun zer-
bait ospatzen zutela eta bestan zirela haiek. Ezin lokar, ezin
pausa, otoitzez aritzen gintzaizkion Jainkoari, otsoen mene-
ra erortzetik begira gintzan, eta zerbait egin zezan. Izpiritu
gaiztok igorri kalamitate horren gureganik urruntzeko

Nork daki zer gertatu zatekeen hola segituz, herritar gazte bati ideia salbagarri bat sortu ez balitzaio? Gizon gazte pobrea zen, neskaxa maite zuena, eremuts izanki inoiz aitortu ez bazion ere. "Otso larrua jantziko dut, eta otso itxura hartuko" erran zuen, lagunaren duda-mudak jestu batez baztertzen zituela.

Otso larru handia jantzi zuen bada, eta gorputz guzia otso gurinez igurtzi ondoan, ganibet zorrotz luzea gerrian emanik, mendiari buruz abiatu zen. Herritarrek otsoen goitzeko besterik beharko zela uste baikenuen, gizon gaztea partitu zelararik, galdutzat genuen gutiz gehienek, nigarretan utzi zituen haren haurrideek oroz gainetik. Bizkitartean, egun guzietz, ardigiegi inguruan, oihanpeetan, bide-xendretan aurkitzen genituen otso gorputz hilek, gizon gaztearen ideia fruitukorra zela eta bera beti bizi zela erakusten ziguten.

Enezat ustegabetarik gertaturik ere, anitzi ez zitzaion hain harrigarri iduritu, goiz eder batez, gure gizona, ondoan neskaxa galdua zekarrela, herrira agertu baitzen. Arribatu bezain laster, jendeek ikus edo hunki zezaten beldur balitz bezala, neska otsotua barruki batetan sartarazi zuen. Herrian, egia erran, beste arrangurarik bagenuen. Hainbeste denbora beldurpean egon ondoan, nolabait zapart egin behar baitzuten gure barneek, egundainoko besta egin genuen: oihu, orroa, kantu, irri, jauzi, dantza, deabruaren zalaparta izan zen, aguardienta burrustaka isurtzen zen...zahar eta gazte, gizon ala emazte, denek ospatu eta zelebratu nahi zuten otsoen kontrako garaipena. Gizon gazte ausartia saildu baten pare ezarria eta goretsia izan zen, amek musukatzen zuten, alabek besarkatzen, gizonak estalgi batetan emanik airera igortzen zuten, eta pulunparazten, haurrak laparrak bezala lotzen zitzaizkion, gatazkatzan ere beren artean, heroiari hartu puskak, otso larrua partikulazki, nork berretzat atxeki nahiz.

Neska guregana berriro etorriaren aita botzik bezain griñaturik zegoen, beldur baitzen, arrazoinerik beldur, ongi edan eta herritarrek alabari mendeka genkizkion. Arratsaldearen erditsuan, ideia nork eman zigun ez bainerrake, herritar andana bat makila eskutan, neskaxa gakoturik zegoen barrukirantz abiatu ginen. Ez genekien zuzen zertara gindoazen hara. Hordituak, pairatu oren gaiztoak burutik ezin kenduz, gure koldarkeriaz ahalka, hark berak bultzaturik, hurbildu arau, gero eta ozenkiago oihuz hasi ginen: "Hil! Hil bedi!". Azken urratsak lasterka egin genituen, zoin lehenka ari bagina bezala.

Eguzkia kukutzen hasia baitzen, negu guzian estali gintuen tapa goibeltasunez oraturiko hark bazterrak berritz ilundu zituen. Barrukiko bortan gizon gazte koraiosoa trebes ezarri zen gure aitzinean. "Geldi! Emaztetzat hartuko dut" erran zigun. Gibeletik pusaka ari ziren jendeak, garrasika, bere arraza eta gizatasuna ukatu zuen emazteki gazte otsotuaren heriotzea eskatzen zutelarik. "Bego! Bego! Ez da zuena, hiltzera zoaztena!" ziharduen gizon gazteak. Tiro bat entzun zen, eta jendea oldarrean sartu zen barrurikira.

Atarian, otsoak sekula jazarri ez zitzaizkion neskaxaren zakurra, kalamitate horretarik libratu gintuen gizonaren gorputz hil odoleztatua milikatzen hasi zen. Elurra ari zuen.

distirak

Suak bilduko direla
itzalean eta momentu berean
eta biziaren erranbidea errepikatu beharko dugula
zeru zimurtu eta abantxu hilaren aintzinean
badakigu
Izar galduak jaustean erretzen dira
Urgeldian ilargia itoa da
Sosegatu diren izate guziak elgarrekin gibelatzen dira
Kantatzen duten bozek egitea ba dute
Bide bakar batez
izpiritu guziak gora gora goittzen dira
Arbolak behezetik jo aireak inharrosirik
Errekontru txarrak bide erdiz
Minik egin gabe errotik ateratu etxeak
hortz batzu bezala
Lurrean zilo batzu gelditzen dira
Eta barnean deusik
Minuta bat
Nun ere gelditasun osoak manatzen baitu
Lehertzearen aintzineko ixiltasuna
Doi doia begistaturik agertu den bidean
Artaldeak galdurik artzaina joaiten zen
Ortzantzaren ondotik
Bere hedoi artaldearen
eta mundutik gelditzen zenarekin
Burua mugituz nigar egiten zuela uste ziteken

distirak

Nafarra

egiak

Nafarra, Nafarra urruna
Nafarra bederinkatua,
txapel gorrien etxea.

Kondairak dion bezela,
zenbat aldiz etorria,
zenbat aldiz joana.

Nafarra, Nafarra ezkondua,
Nafarra alarguna,
zure lur lehorrentzat, Xiberoko elurra.

Nafarra, haundietatik haundiena,
eskutan kristaua,
Oiertzunen ezaguna.

Nafarra, zezenen belarra,
Iruinea harriskoa,
Estella horia.

Nafarra, Nafarra,
Aralartik nago oihuka
zatoz etxera, ala,
betiko izan zaite madarikatua.

Egiarekin egindako
espatak dute
gizona hil.

Egiak ditu legeak
egin, eta lege
gabeak urkatu.

Egiak egin du gosea
eta gizon lodiak.

Egiarekin zuritu dugu
haurraren esnea.

Egiak ezkondu ditu
ez zirenak maite.

Egiari besoa
moztu diotelako
nere ama negarrez.

Egiak eskuak beteta,
baserritarra joanda solora,
egiaren soloa,
egiantzat artoa.

Egiak eraman du
espainara soldado.

Egiak jotzen ditu
nere herriko kanpaiak.

Egiaz beteta dira
neska hutzaren sabelak.

Egiak dio
anai arrebaren
semea ez dela egia.

Egiak du
Aita Sandua egitu.

Egiak egin ditu
Euskal Herriko lanoak.

Egiak utzi ditu
gau gabe sorginak.

Atzo entzun nuen
haur bat jaio dela
eta, gezur izena duela.

Kondairari barrikada

Autobusa izana denetik ez dira hezurgo metaliko beltza eta kristal hautsiak baizik gelditzen hiriko abenida nagusiaren erdian.

Burdin erreak oraino beroak, ondoko obra publikoetako xantierrean harturiko zurabe eta bidoinak berdin beltzatuak eta beroak. Kamiu bateko orgaxka gorria ere ba da, eta harriak, lodiak batzu-barrikadaren osagailutzat baliatuak izanakti-piangoak aldiz besteak, barrikadaren bi aldeetan datzatenak, kristal hautsien artean, hiriko abenida nagusiaren erdian.

Zenbait gar oraino kurri egur-burdinetan, zirtatze apal bat, supazterrenen biritxi modernoa, sua itzaliz doa, barrikada gogor, irangangaitz eta konpakta osatu bait zuen, bide bazterretako espaloietan gelditutako jende paralisatuek sekulan ikusi ez zuten bezalako barrikada iraunkorra, harri eta kristal hautsien artean, hiriko abenida nagusiaren erdian.

Haizea altxatu da, hiriko haize hotz inbertsonala, urruneko sirenen, lamentazio eta karraxien oihartzun bilutsi zorrotza dakarrena, halaber ba dakartzalarik lantegien hats azidatuak. Joaiten ditu hauek, hauek eta gaz nigar eragintzaileen usain pikante itogarria, errekiaren azken seinale persistakorrak. Ba deramatza beraz, auzo etxe aurretik hartu zaborren usain usteldua ahantzi gabe, ezen, barrikadan, espaloietako zikin-ontziak hustu bait zituzten, sardin latak, tampa, egunkari horituak eta gainerateko arraultze-ontzi edo plastikozko esne botilak, eta su eman bait zizkioten ere, barrikada iraunkorrean, harri eta kristal hautsien artean, hiriko abenida nagusiaren erdian.

Lano sufreztatuta edota amoniakatuak altxatu ondotik ikus daitezke orain zenbait gauza gehiago: harri eta kristal hautsiak tole, harri metak, kartoiezko zilindroak, gomazko balak eta metalezkoak ere, gazolina-ontziak, bi bazterretako banketxe eta saltoki handien bitrina puskatuak, bulonak, abailak eta zer nahi motako igorgai, gristaturiko odol puztu bat, espaloi ondoko arlañoak bait derama zigarreta-ondar eta beste hainbat zikinkerirekin garratoinen bizileku ilunera, hiriaren errainetan, barrikada iraunkorraren honaindian, harri eta kristal hautsien artean, hiriko abenida nagusiaren erdian.

Bide bazterrean geldirik diraute ikusle paralizatuek ausartu berri den eguzki erdoilduaren pean, barrikadaren itzala luzatzen duena gibelera, han, frango goizago, bizpahiru urtetan, beste barrikada bat ágertzen bait da, orainkoa baino motelagoa, ez hain iraunkorra alo, harri eta kristal hautsien artean, hiriko abenida nagusiaren erdian, eta denboraz goiti jarraikiz, geroari bizkar emanez, oraino beste barrikada bat kausi bait daiteke, eta beste bat oraino, beti barrikadak, molde berdintsu ala diferentez muntatuak, denboraldi bariabiletaz berexiak -batzutan egun bat, bestetan urteak-, beti eta gehiago, denboran gibelka joan daitekeen urrunenean ere barrikadak asarre eta ilusio hautsien artean, kondairaren abenida luzearen erdian.

Ezen, nehork ez bait daki ez eta jakinen ere sekulan, noiz hasi den hori, bakarrik asma bait daiteke hastapenean bidexka bat baizik ez zela, xendra mehar era harritsu bat, hartan gizakiak ihizin artzen bait ziren, edo sua deskubritzen, edota lehen margoak sortzen harpeetako murru umietan; bainan ezin daiteke erran bidexka hori nondik etorri zen, nonbaitetik jin zenez ere ala hor zegoenez betidanik, kreazionaren denbora bezain karkula ezina. Nork daki ere lehenago ez zenez abenida bat izan, alegia, bidexka aintzin abenida, eta gero suntzizearen suntsipenez bidexka, pittaka abenida berriz izaite- ra ardietsi zuena denboraren ziklikotasunean, lehenik zagorrak lauxen ondolik makadama, pixkanaka, barrikaden azpian, asarre eta ilusio hautsien artean, kondairaren abenida luzea..

Ez uste haatik abenida erregularra denik, ez, hori zuten hain zuzen barrikadek—eta hainbeste gorputz hoztuk—helburua; desbideratzea. Hots, etengabe, nekatu eta amore eman gabe, kondairari barrikada bat altxatzen, une batez kondairari beste bide bat harrarazi, memento -sinkronian luze, diakronian hain labur- batez gertatua dela sinetsi, amesturikoa behatzen senditu, usaindu, bizi, gaita baten nota betikotu, memento batez bakarrik ezen, aldi oro, barrikadaren itzulia egin ondolik, berriz kausitzen du bidea kondairak eta batzu ikusle paralizaturik geratzen direla, denborak borratzen ditu barrikadaren ezker nahiz eskuin abiatu ziren debiazioeak, askoz berantago -beste barrikada baten kari- agian agertuko bait dira hauek liburu batzuetan bilduak, ez direlarik oroitzapen kolektibotik arras desager -araziak izanen, asarre eta ilusio hautsien artean, kondairaren abenida luzean. Berdin gertatzen ari da oraiko barrikadaren ondoan, lakrimogenen eta errekiaren usainak joanak, odol grisa lehorturik, ikuslierrak beti paralisian. Burdinak egurrak baino beroa atxikitzenago, laster hoztuko alta, denak hotzen dituelako denborak, halaber denak ezabatzen dituela, barrikadaren ondoan hasi zen desbiazioe tentagarri hau bezala, bainan hori guzia jadanik iragana da, aintzina jo behar, hemen gelditzeak paralisia lekarke, oraia -geroa iragana bilakatzen den puntu edo maila iheskor hori- hemendik zenbait astetan dago, han, kondairak barrikada iragan eta berriz bait darraikio bere berezko bide inebitableari, hor, gazte multzo batzu eta gizon emazte frango ere bai, sirenak hurbiltzen direla, barrikada baten egiten hasten bait dira, zer nahi motako materielekin, hemen eta orain, asarrez eta ilusioz, barrikada iraunkorra agian, harri eta kristal hautsien artean, kondairaren abenida luzearen erdian.

Zer giren bestenez.

... "Hori da ontsa errana,
bainan behar dugu lantu gure baratzea ! "

VOLTAIRE, "Candide"

Diela ehun mende, hemengo herrian,
Jende jakintsunenak, harpe beltz batian,
Bildu ziren ta jarri supazter xokoan,
Ikertuko zutela zer zuten gogoan !
Zuhurki hasi ziren, beraz, eleketan,
Denak utzirik eta, erran eta merran...

Hunek, erraiten zien, gizona zerutik
Erori dela hunat, Jinko bat izanik.
Bai eta orai ere, hortaz orhoiturik,
Ametsetan bederen, baduke geroztik
Argiño bat gogoan ardura pizturik,
Bere bihotza nunbait iluntzen delarik..

Horrek, segurki baietz, eta berehala
Zimizta bat burian agertzen zakola,
Jakitate handia hortik heldu zela !
Gizona balinbada jinko bat bezala,
Egiaren zaintzeko ukanez axola,
Zergatik agertzen da, hemen, hain ahula?...

Harpiaren jabia, leherrina baitzen,
Ihizitik jin eta, zanpez lokartu zen !
Gure hiztun ederrak, han beti mintzatzen,
Solazari loturik, denbora pasatzen,
Eta zilo hortarik nehor ez jalgitzen,
Kakin beharrez ere, etziren higitzen !...

Harpe guzia baitzen arrunt usaindia,
Hasarrian jeiki zen lekuko nausia :
"Nik ez dakit badenez gogoan argia,
"Ba bainan atxeman dut zertan den egia :
"Ziek utzi orduko, hor, zikinkeria,
"Nork garbitu behar du ene sukaldia ?...."

Egungo Jaunak ere, dira ene ustez,
Mundu zikintsu huntan, kezkatia zinez,
Alferretan mintzatuz, lanak ez eginez,
Gero ta gehiago goxoan egonez,
Kakaren garbitzeko sehia beharrez,
Lagun aski zozo bat ezin atxemanez !

Metroan ibiltzea maite zuen. Auto horien haizea eta burrunba zizkolatsua laket zitzaion. Mendian sortua zen; zitudion orduan, hiri handi hortan, lurpean, jenden artean, haize mehe bero horrekin mendian zabilala larrazkenetako urri-minen bago hatsean barna.

Horregatik, egunero bi edo hiru ordu pasatzen zituen metroan; Aste guzietz txartel-karnetak erosi ondoren, sekulan reskillatu gabe (legalitate betean obratzen bait zuen) ibilera honen harat-honaratak gozatzen zituen. Nahiz ez zoan Chatelet, Nation, Louvres eta Couronne estazionetan gaindi baizik, iduritzen zitzaion Romen, Muetten, Sebastopol edo Loretten zelarik munduaren inguruan hiriz-hiri: Madrilleko Oriente plazan, Erromako Neronen baratzetan, Atenako akropolean, New York zentral parkean zikintegi miatzen, Moskun Puxkin kafean Maiakowski entzuten edo Buenos Airesen Atlantiko itsasoari begira. Eta beti zutik. Metroaren gelditze bakoitza eskale bat zitzaion: aireportu, leihor urrundu, trenhartoki hotz eta xuri...

METROPOLIS

Baina, asmatu herrialdeak baino arpegiak maite zituen. Bistan da berea (arrunta) ez zuela sekulan ikusten, eta besteak zituen beraren mirail hoberenak. Horrelakorik ez zen posible mendian, haizearen eta eguzkiaren arteko bakartasunean. Jende mota guziak bazabiltzan hor, zerrendaka zenbakiak bazituzten bezala. Lasterkada hortan nehork ez zakien helburu balizkako horren balioa. Arpegi batek bere erakasle bati pentsarazizion: hari so egon zen bulta bat, eta erabaki zuen, zinez, erakaslea ederrago eta sensualagoa zela. Kitto.

Jendeek begiak galduak zituzten, ziloa bazuten ikusmearen lekuan. Agerizko ezaxolak zerbait makur handiagoren beldurra gordetzen zuen. Beldurra ere senditzen batzutan mendian. Oronen estakuru bakarra lana zen, eta bizitza irabazte gatik (ez da oraino horrenbeste zaila paradisua irabaztea) las terka bazoatzen. Kaseta besapean, ataxekeiza eskuan, "la methode de la Méthode" irakurtuz, zeinek sakonago bere leidura, eta zein bestea baino diferentago. Beldurra..

Harek lasterka ibiltzea maite zuen. Haur denboran mendian manera berean bazoan, xori zangohautsien ondotik, hosto erortzen ari zena atzeman nahiz. Beti debaldetan naski. Metroa mendia zuen, jendeak lagunak zituen eta denek helburu huts bera zuten.

Azkenean jende osteen ikusera berdina eduki zuen: asmatutako ortzaiz bati begira zagon eta, belarriak kloxar edanen eta arrotzen ele makaleri hetsi zituen. Metroa, segurantzgabea gatik, kartzela bihurtu zitzaion. Irria galdu zuen. Plazerrez baino beharrez hartzen zuen metroan. Goiz nardagarri batzutan burdinezko erroten pera botatu gogo zuen bere burua. Hori, momento batentzat: baizik ez balitz ere, haize bero mehearen eta burrunba saminaren geldiarazteko.

Gehienetan ordea, arratsetan, lurperatzen zelarik martxoko Pariseko haize motzetik metro barneko gozo oparoa iragaiten zen. Eta han, nola haize hegoa, airea, amatsu, airea jastatzen zuen.

Egunero eta gauero mendi alegiazko haize horren hatsaz...

M
A
K
A
O
K
OS
U
G
E

Esku malin batez, txapela buruan pausatu zuen. Begi hetsi-sa-murrak eginez, Habanako zigarro lodi bat ahoratu zuen. Ahotik, kea zirimolan botatzen zuen. Ingurumena hedoitsu zagon. Airea, wizki eta edari bortitzen usainek pizutzen zuten. Berinda izerdidunetarik, Makaoko itsas kaia ez zen ontsa ageri. Ordea, Antoine Roquentin jaunak bazekien zuzenki Makaon zela.

Beste gizonak, zutitzen ari zen Antoineri kasurik egin gabe, beren poker lasaia segitzen zuten. Hamar dolarretako neska publikoak ondoan zauzkaten, perekan eta hitz lainoka ari... Makaoko taberna populutsu batean zauden. "Jo!" oihukatu zuen taldearen buruzagia zirudien gizon batek. Eta, ordu berean atmosferan zer bait aldatu zen: mehatxu mugabetuak airea astintzen zuten, bihotza pilpilarazten.

Antoinek erran: "kanpora banoa freskotasun piska baten bila. Gero arte!" Kaia gainean, bera bezalako ehun bat izate baziren, goitika, pixiten edo lotan. Hori ikustean gohaindura latz batek hartu zuen; duela aspaldi, Bouville Frantzian zagolarik, sendimendu berdinak inharrosi zion gogo. Antoine Roquentinek zenbait urrats egin zituen, eta gelditu zen, tente, zutik, pentsati. Orroitzapen batek, ximixtan trebeskatu ikusmena: lau urte zituen, eta amatxi zenaren ohe gainean jostetan ari zen, deus sumatu gabe. Amatziren esku hotzak hunkitu zituen. Bertan, heriotzaren hotzaz ikaratu zen.

Orroitzapen horri ihes zegion.

Geroztik zubipean, ur asko jari zen. Afera tzar batzutan sartu zen Txinatar Li-Paorekin, eta ondoko mahainean kartetan ari ziren lau gizonekin. Hauen izengoitiak baizik ez zituen ezagutzen, eta sekulan ez zioten berari ezer eskatu bere bizi-az. Li-Pao arras maite zuen. Antoinek harekin ikasi zuen Txinena, Timonnier Handiaren laguntzale amorratuen artean zagolarik. Ordea, Iraultza Corriak, bien geroak lurreratu zituen, eta ez Konfuziuzen itxurak bakarrik batzuek uste duten eran. Eskapatu beharrean aurkitu ziren.


Klandestinoki, Pekinetik Makaora pasatu ziren. Eta ixiltasunaren legeaz baliatuz beren biziak, hiriportu komertzante hortan, berriz eraiki zituzten. Aferak eta morala ontsa doazeno, O.K; baina, Antoine asea zagon, eta, Europaratu nahia zen, etxekoen, lagunak ikusteko. Gainera, egunetik egunera gohaindurak torturatzen zuten. Segretuak bazituzten, eta bost gizonak odol-tratuaz lotuak ziren elgarri.

Antoine Roquentinek jakin zuen, azkenean, Li-Pao bere laguna Bobek tiroz erabil ziola; Poliziak, aferagile famatxardun horrietarik batekin, ez zuen inkestarik ere hasi. Itsas largoan, marinelek gorputz bat aurkitu zuten; nehork ez zuen, hortan, deus bitxirik atzeman. Halatan bere egun-puntua, gero eta hurbilagotzen senditu zuen. Interesez estekatua zen besteeri, eta ez zuten joaitera uzten ahal.

Pentsamendu hauetan barna zabila, esku ilezu eta lodi bat bere ezkerreko sorbaldan pausatzen nabari zuen. Ez zuen oihurik egin, eta erdizkara itzulikatuz Bob ezagutu zuen: "Bob! Zer?" Arpegi hori ikusi zuen. Bizkarrean behera gauza hotz eta luze bat senditu zuen, zigizagaka jausten. Txistako bat. Gero, lurrean harrabots iheskorra. Eta, ezer gehiagokorik.

Abian, Antoine gaizkitu zen. Bihotzak utzi zuen. Bobek irri deprutsu bat atera zuen: "Honek munduko itzulia egina dik!". Lasterka etorri bere lagun Sio-Linek erantsi zion: "Parabisua suge batek nahasi bazuen, Antoine Roquentin jauna, abere berak baketu digu. Ha, ha, ha..."

Biak irriz partitu ziren. Antoinen gorputza, heriotze bortitzaren sufrantzak hautsirik, zabal-zabalik zagon kaian..Beste lauek karta partida finitu zuten.



Pollock amerikano tindalariaren margoen erakusketa bat bada Parisen. Beaubourg kultur zentroan. Honek urtarrilaren 11tik eta apirilaren 19ra iraungo du..Beraz, arte hortan Pariseratzen bazarete, ukanen duzue erakusketa horren ikusteko parada.

Ehun bat margo dira, Ipar Ameriketako museo famatuenetarik ateraiak, sala bat Jackson Pollock nor zen presentatzenko(argazki, idazki eta bideofilma bat), eta leku batean, European dripping teknika erabiltzen zutenen pinturak agertzen dira, Pollocken lanari neuri mundial bat emaitako.

NOR ZEN POLLOCK : 1912 urtean sortua Cody-Spring Wyoming, bere aitarekin estado batetik bestera ibilia eskolara joan aintzin, Arizonan gaindi Kaliforniara. 1930.ean halere, New-York-era lekutzen da pintura ikasteko xedearekin. Ordea, 1929.

ean izigarriko krax finazial batek herrialdea inharrosten du, eta gure Pollock ahal duen bezala bizi da, ebasketaz batzutan. New Dealak sortu Project Artarekin arizan da lanean. Baina za iltasun material horieri problema psikologikoak erantsitzen dira : edatea, bortizkeria, desesperantza...Krisisen eta psikoterapien artean iraganen du denbora.

PINTURAREN NONDIKAKOAK : 1943urtean Project Art saila abandonatzen da, eta Peggy Guggenheimek segida hartzen du New Yorken bere Art Of This Century margotegia irekiz. Orduan Pollock, BENTONzuen maixu antimodernistaz berezten da, eta Mexikako tindalari populistak(OROZCO, SIQUEIROS) segitzen ditu, PICASSOren, MIROren eta MASSONen influentziak gaintitzen saiatzen da bere manieraren aurkitzeko.

Europa zaharrarekin moztura bat bezala gertatzen da "dripping" egiten hasten delarik 1946-47 urteetan;;dripping teknika hau, da pintura ixurtzen uztea pintxeotik taula xuriaren gainera , eskuarekin espazio mugabetuan edozein mugimendu sortuz. Honek taularen gainean gizonaren dantza bat emaiten du. Orduetik goiti ezaguna da. Bere ondokoek imitatuko dute, eta berak ez du probetxu handirik edukiko 1956 urtean auto ixtripu batean hilen baita.

PINTURAREN BEREZITASUNAK : Pollockentzat taula xuria /hutsa "arène" bat zen, eta tindatzea bizi edo hilezkako gatazka garrantz bat. Bestalde 1930eko margolari Benton edo Mexikano populisten xede bera zaukan;jendeari buruz joaitea. Ez zen ordean, politikaz biziki mintzo; gai sakon sakralisatuak baizik ez zituen erakusten bere lanetan. Zuen azken proiektua eliza baten dekoratzea izan zen. Bere dripping teknika NAVA - JOS indioen sand-paintingeri lotzen zuen.

1943 urtetan jadanik Pollockek zion:"pintura bakoitzaren bilakuntza da", eta "margolari onak, bera den guziak tindatzen du"..Jung eta Picasso lagunduko dute bere izate bereziaren bilakuntzan. Eta hortik hara gorputza utziko du mintzatzera, surrealista idazleen "écriture automatique"aren antzera, margo-huts xuriaren gainean dantzatzera, gizona tindatzen izanez, gizon tindalariaren ordeztu..SECRET'S GARDIANS(1943),LAVENDER MIST sailak(1950) eta PORTRAIT OF A DREAM(1953)pinturek mugimenduak, nekeak, automatismoak, erritmak eta hats - hartzeak erakusten dizkigute. Gizona tindatzen.

AZKENA:1951 urtean jadanik dripping hori Pollocken kartzela da; ez dabil aurrera. Grazia osoki joan zaio,ordea oraino ederki tindatzen du..Aski ote da, Pollock bezalako baten-tzat espazioaren maixu handia izanik, ederki tindatzea ? 1956 ean bururatzen du bere lurreko ibilaldia.

XXgarren mende erdian Ipar Amerikak bere margolaritza propia badu, eta hori Pollock dela medio. Ez da errez Pollock-en lana begi hotzez ikustea gizona obra baino lehen mitifikatua izan baita: espazio etengabeen edalea, tindalari errabiatua, Buffalo Bill eta James Deanen arteko heroe bat...

Faltsuan daude "bizitza ederra da" dioten gizon-emazteak. Ez dira ohartzen bide makur batetarik ibiltzen direla, makurra haientzat zuzena, betea eta egia delakoan. Ordea, bitan pentsa dezatela "bizitza" hitz hori erabiltzen dutenek; "ederra" eransten zaiolarik gainera.

Batzuek uste dute, ezen, lana badutelakoan, andre-haurrak ere, ederki bizitzen direla; eta, halaber besteek, beren desiren bidetik dabiltzalakoan, berezitasunaren hildoan dago la bizia. Zentsu komunak erreusitzea, heldutasuna eta adinzuhurtzia dauzka bizitza ederraren seinale ospetsuen bezala.

Ez du zentsu komunak beti arrazoi; eta hala balu, denean zabaldua ez dela frogatua denaz geroz, ez luke mundu guztiak horretan arrazoi. Horrela, uste komunak aditzera emaiten dugu, komun zaizkigunak, behar edo egi betirakoak direla; eta gure mundu-mendea betikotasun ilusikor hortaz beztitzen dugu. Zerbait gorde beharrez ote?

Baina goazen solasen harira, eta derragun gogoan duguna osoan: nolaz ogiaren azala ez den ogia, mamia ere ogia delakoan, eta azala mamiarekin bat behar baita ogia ogi deitzeko, erranen dugu goraki bizitza deitzen duguna ez dela bizitza, dela komedia, beraz azala; ondorioz, premiatsua zaigula. Eta komedia uste ez dugun jokoak heriotzaren traieri etengabea itzaltzen digula. Bai, heriotzea. Nork lezake sinets sortu garen goizetik, hiltzen ari garela; azken hatsa ibilera horren bururape: latza dela? Ordea, ogiaren kontrala, komedia / traieria honek mami gauzatsurik ez du. Ez gaitzke beraz, haz eta berpitz, hutsa baita gure egunen lagun zoritxarkarlea...

Heriotza eta hutsa, besterik ez.

Zergatik haserretu diogunaren aintzinean; hau ez da zentzu komunak erakusten digun aldea. Utz azu orduan, "bizitza" hitz hori sortuurreko gizaren ibilgaien izendatzeko; zeren "bizia" den segundatik "heriotza" deitun behar baigenuke. Halatan, ezer ez dira heriotzak emaiten dizkigun beldur eta angustiak. Ez dargiogun ihes, azken heriotza, barneko zahartze prozezuz baten bururatzea baizik ez baita; eta hau, normalki bizitzea, komeni da. Zergatik negar egin, norbait hurbil hiltzen zaigunean, hastehastetik kondenatua zagon, guziak kondenatuak garen bezala!

Jainkoaren sopean hilkor gara.

Jainkoak, ikusle urrunduak, bizitzen laguntzen gaitu. Haren izatearen ideia aski zaigu. Ordea, harek bakarrik daki hiltzen laguntzen gaituela. Bestela non litake Jainko hotz horren beharra. Gizonak, jainko betikor bat asmatu du, ez baitzuen behi bizitzaren eta heriotzaren artean hausturarik bazela onhartu. Funtsean ez da berezitasunik, denak nahasten dira, Kalderonek dioen arabera ("todo es sueño") amets batean bezala.

Bai adiskideak, jainkoa eta gizona, bizitza eta heriotza amets badira, bat bestetik sortuak eta aldrebes, errez pentsa dezakezue munduko izateen arteko diferentziak debaldezkoak direla, eta batasun hortan bizitzaren egia heriotzean datzala. Ondorioz, bizitza hutsean baizik ez da aurkitzen. Halatan, lehenik hil behar da bizitzeko, eta hutsetik ateratu berriz hiltzen hasteko.

Adiskideak bai, erraiten dizuet: bizitza heriotza da, heriotza hutsa da, eta bizitza hutsean dago; ezen, bizitza heriotza denaz, eta heriotza hutsa... klarki dakusakezue zein den gurre solasen funtsa eta munduaren zutabea..

Bai adiskideak!

geofisiko I

Zure gorputzeko
arroila hutsetan
eguzki sartzea
itotzen nakusan,
zure gorputzeko
hildo zakarretan
(urteen goldeak
marrazkituetan)
eurien malkoak
urtzen senditu
nituen bakarka,
zure gorputzeko
belar lehorretan
jarri eta nuen
udako haizeen
(itsaso gazi aire)
beroa jastatu,
zure gorputzeko
lur mokor altxatu
goren goreneta
musu izerditsu
bat nizun pausatu
 lurra maitez
 lur emaitzez
zure gorputzeko
etengabearen
ahantzlekuetan
galdu nintzer.

taberna ketsuan
mahaindua,
Samuelek bere parrean
bisian bis(bis)
neska, ilun, pentsati eta
beltzaran bat
ikusi zuen
bakarrik
zagola.

zigarro"lights" bat erre nahiz
su bila bazabilkeela asmatu ondoan
pentsatu zuen, pentsatu
orain, mementoa zaitekeela !

eta, zangain bermaturik
neskaratu zen, eskatuz:
-"norbait idurikatzen duzu?"
-"bai...tenorea" ihardetsi zion,
-"a! barkatu...uste nuen.."
Samuel urrundu zen
deus ez balitzan
osala...

egia,
hala ere, ez zen gezurtia:
tenorea etorri zitzaionean
zutitu

eta
abiaturik

zen,
neska...

lights time

Itxaro Borda

Emazte arruntaren koplak

Bizpahiru koplekin eginen dut junta.
Zeronek ikusteko bertsoaren munta
Utz nezazu gauza bat dezazudan kunda:
Nolatan bizitzen den emazte arrunta!

Oraindikan mintzatzan hasi behar duta
(zeruko jaun handia ezin dut saluta)
Mila beso berotan badago galduta
Arrunta izan arren ez ditake puta ...

Maite duke gizonak apalki diona;
Hitz erdietan baita bere zoriona,
Eta harek badegi, oi, eskari ona
Ihardets dezake:"bai hauxe da biona!"

Ohe gain zurietan, beldur hutsa hila,
Gorputz desbestituan eskua dabila,
Atsegina uhainka sendi du abila
Musukatzen duela gogortu zakila...

Baltsa honek azkenik dakar izaria,
Jakin zazu laguna, hau duzu haria:
Batek badio"Jesus", besteak"Maria"
Ixil bedi alauda txori kantaria...

Ikaran ikusten dut bertute gaztea,
Erraiten du ez dela ontsa ahanztea
Nola gertatua zen munduen hastea
Bekatu mortaletik sortuz emaztea!

Bederak badu maite gisako mahaina:
Uluak uda minez ungarri usaina,
Guri laket zaiguzu gizonaren zaina,
Bere itsaso galgarri ilezuen gaina...

Bertso hauek emanak diren bitartean
mendeak badoatzi mihisen artean;
Solas gozoz moldatu ditu anartean
Emazte arrunt batek Herriko partean...

XIXgarren mendeko emazte batek emanak:

Gaxuxa Kakoli

Gizonak

Denbora hartan artzainak orai baino berantago jausten ziren bazketarat ardiekilan. Baziren Eguberri-iri artio egoiten zirenak bortian, ardiak erditzen hasterakoan jausten ziren menditik. Nik ikusi izan ditut Donianen igaraiten artzainak bizpalau axuri beren inguruan, ardi saldoa aintzinean joare ederrak barbarikan.

Urte hartan elurtu zuen Eguberri aintzineko astean. Artzain haborotxak jinak ziren beheiti beharrik ! Gaitzeko elurtea egin zuen eta bortuak legun-legunak ziren elur-xuriz kukuturik.

Gizonek astelehen batez ostatuan erran zuten :

- Eta Frantxua ? Ez ahal duk jina beheiti !

- Ez, ez, hemen gaindi nehok eztik kusi ... Han dukek, Egurgin.

- Beharbaa elur hau urtuko'uk, eztuk denbora halako finian, hegua beltza ateatzen bala berriz leihorria beltzatuko'uk ba, hain seur.

- Baa, bana egun pare'atee zeait duk ardiendako, jan gabe. Ta Frantxua ? Elikek abiatu behar beheiti holakuaikin ! meskaatzia hirriska liok ...

- Eztuk neholaree Ataburun igain ...

Erran behar da "Egurgi" delako saroa hegoaldean dela. Fontsean Egurgiko erreka Nafarran behera Erriberarat doa. Egurgitik gure herrirat jiteko goiti igan behar da, Ataburuko ateketan igaran eta gero berriz beheiti. Ataburun behera jinez gero salbu da. Bainan horraratzea elurtearekin ... Bada ere beste bide bat : Erruzateko zedarrietarik, Gohosaron behera Behobirat. Bana lanjerosa osoki elurrarekin.

Haizearekin elurra ari zuen. Oro xuri, oro ito, etzen fisik ageri. Ezker eskuin behatu eta beti xuri, beti ito. Infernu xuria. Frantxua etxolan, su haundi bat pizturik. Ardiak han soroan, inguruan, elurrean.

Gau bakar bota zuen zehamu bat elur. Goizalderat Frantxuak hori ikusi zuelarik, egin zuen :

"ba, eztuk egoin ez araz !"

Aroa etzen hain latza, elur-gizena zen, larrazkeneko elurra. Hamekoonak irian, eztitu zen denbora. Etxola-gaina gesaldu. Ta iruzkia tirriaka odeien gibeletik ari zen. Ardiak inharroska. Lohitei ageri zen eta Uhartepeateko mazelak nabartu ziren: ote tusta kaskoak han hemenka ageri.

"Gesaldu beha'ik" egin zuen Frantxuak.

Xakurraz xanpaka eta harrixtuka ardiak higiarazi zituen. Marraka ta marraka artzaina ikus eta.

Frantxuak ahamen bat janik, sua kargatu eta etzanaldi pixka bat egiten du. Ohantzearen gozoa ! gorputzeko minen karga ...

Jeik'eta ...lano ! Haizea hotz. Elur lipitzak idor-idor ta firurikan. Ardiak marrakaz. Xakurra intzirika ... Hazta bat igaran zitzakon Frantxuari bizkarrean.

"Juan behar diat tenore deno ! Eta fite !"

Sua hilik eta etxola gaketurik, ardien harroarazten hasten da.

"Herlepotik inguru izigarria diat. Eta Lurlarrututan xendra ez paa'ut atzemaiten ? Intzaazkiko pendoitzetan larrutu behar diat ardi salduaikilan ... Ta, Ataburuko atekak ? Hail hi nola-ko eluhosuak haiziak haatiak tien ! Hobe diat Erruzatetik ... ?

Gora igan behar diat ba, bana elurrari aintzintzen ahal nakiok ... Gero Gohosaron behera behala Geheizten nuk. Han elurra mehioo dukek. Haaz gioz Behobin nuk ... Antxilen alden !

Heep ! Heep ' hea ! ardiñuak ! guazen ..."

Mirrik eta marrak, xakurra jauzteka xanpaz. Elurra ari sapa sapa, lipitz harro eztiak ilaunak bezain emeki lurrerat eslaika : itsasaldetik Goizerrirat zeharka ...

Badoa Frantxua ardien aintzinerat. Jualdun adar zabala bere ondotik, besteak gibeletik. Lekuak aski untsa ezagutzen baititu, xendra idekitzen du elurrean oskiez siki-saka.

"Heep ! he-eep! txai-txai ! prrrrii zaap ! ". Drelin-drelen, mee, mee, ardiak ondotik.

"Lohitein hibia eztiat hutsin behar ..."

Garkolan hotz bat Frantxuak. Egurgiko errekek liskak nun-nahi badauzka bazterretan, hibia bada Lohitein, bainan ez da hutsegin behar, bestenaz xahu zira : lohian sar eta higituago eta barnago juaiten zira ...

Iluna hurrantzen.

"Uhartepeko xendraratu behar diat ilundu gabe".

Izerdi, eta hotzikarekin Frantxua. Zango bizkarretan hantixurak baditu eta sukarra. Oskiak laxuan - ezin esteka minen gatik - badoa, elurra baztertuz ahal bezala aintzina. Gibelet rat ardura so, oihi eta huxtu ardier ... Lohiteiratzean iluna. Folt sua danga danga, atorra bustia. Beharrik tokiko ara badu : hantxet doi-doia harri lauzak ezagun urean : hibia. Xakurrari oihuka igaraiten da. Jualduna gelditzen da urari so.

"No, no, no, xauri, xauri ..."

Ardia dudan artzainari so ... eta hurrats bat, biga ! Heldu da uretik, bestiak haren ondotik.

"Txaurtee, txaurtee !"

Hura, hibia igarana !.

Ilunpeka Frantxua badoa. Gogoan derabiltza mila orhoitzapen. Axurbaskaria ... Ikusten zituen gizonak, hari axuriak eman zaskotenak. Gure aitak ere eman zakon baño. Aitak bazuen emanik artzain gazteeri berak urte bezenbat axuri : heldu baita berak etxean zuen ardi baino gehiago. Hazten ginduen hamalau-hamasei axuri urtaldian. Batzutan hoitarik biga emanak ziren, hola artzain mutil baten beregain plantatzen laguntzeko ! Behin, bederatzi axuri-bizitako gintuen bakarrik, eta urte hartan ere jin zen mutiko bat gure etxerat : artzain plantatzen zela... Aitak eta amak eman zakoten Aña-Mariren bildotsa. Aña-Marik ainitz niqar egin zuen. Orai Ameriketara da.

Frantxua Xurruxtako parreratua zen. Elurra ixterretaraino heltzen zitzakon. Buruan izigarri min zuen. Gero eta indar gehiago egin behar zuen elurraren urratzeko. Etzakien ze tenore zen, gaua eta elurra beti ari. Erortzen zen eta besoak elurrean sartuz, ote ziztaketan eskuak odolduak...

"Behar tiat heldu ... Erruzateko zedarritan pasatzen baniz salbu nuk... Gio elurra mehatuko duk."

Zangotan min, izerdi. Oihi, xanpa, huxtu. Itzulipurdiko batean ikaragarriko kaska hartu zuen belaunean harri-geenda batean. Esku-bizkarrak zauritan zituen. Ohoitu zen Migel artzaiñaz. Han bere ardi saldoarekin nequ batez toki bertsuari meskaratu zen. Gizonak herritik jin zirelarik, hilik arrapatu zuten... Arranoak, mila bederen, hedoika han : ardi jaten arizanak... Migel oso utzia omen zuten. Hunen gorputza andetan ekarri zuten herrirat gizonak gisalat. Nik izeba Mariari entzuna ixtorio hori.

Gure herrian gizonak elhaka.

- Frantxua meskaatuko'uk Migel artzaña bezala ezpagira xeka juaiten.

- Arua txartia'uk. Oono elur gehoo in beha'ik.

Eta abiatu ziren auzoen etxetarat : Frantxuaren xeka juan behar zutela.

- Eztuk abiatuko. Gañian badukek bost zehe elur.

- Baa, bana, sekulan abiatia balitz ? Nuntik jinen ote da ?

- Herlepotik Ataburun gaindi ezin duk. Lur larrutietan ez duk ateako, eta Ataburuko ateketan ?

- Alanbretako hegitik hausten ahal likek.

- Eez ! elur sobera'uk. Eztuk hantik abiatuko, ja ! Manera oroin arabera Zedarritaik jinen duk abiatzen bada. Eztuka kusten laburrena hantik diila ? Behala elurra mehatuko ziakok Er-ruzate giila igaanez gioz. Harpeko parrian ia ixtantian duk.

- Ixtantian ? hail hi ze elurrak dien !

- Baiaietz. Nik badikiat, hantik jinen duk. Hantik jinen dela !

Frantxuak zango-bizkarretako hantitxueta-rik erresumina zuen. Oskien estegailuak aspaldi galduak zituen. Elurrez eta urez zapetak igeri, ixterrondotan ixtizurriak minbera begi-ninia bezala. Pollikiño egiten zuen hurrats, ixterrak sobera ideki gabe, hainbateko mina egiten baitzakoten ixtizurriek.

Orai elurra gerruntzeraino bazuen. Ardier elur-pilotak ileburdatsetan lotuak zitzezkeen.

Elurra gelditua zen eta odei artetik doi-doieko argi nabar bat heldu zen. Lurraren xuriak pizkortzen zuen argi hits hori eta ardiak lerroan, elurra baino ilunago nabari ziren. Bainan Zedarritako lepoa han urrun zen eta elurra hain lodi. Frantxua hats-hantua elur baztertzen ari zen bere gorputz guziaz. Gero eta aiseago erortzen zen. Nundik zuen min orai etzakien. Metra bat gehiago idek : etzuen besterik gogoan. Xendra ez gal ! Mintzoa erlastua zuen oihuka ariz. Aintzina ari zen deika xakurri, harrixtuka ardieri.

"Eztuk gelditu behar !"

Bere buruari ari zen zerbait gisaz manatu nahiz. Pusa eta pusa, belaunez, eskuz, papoz, ixterrez ...

"Txau, txau, heep !"

Gogoratzen zitzazkon behereko bazka-lekuak : arditeiko belar-urrinak, pentze berdeak, etxe pollitak... eta plazan haurrak pilotan... ostatuko gizon mintzoak eta arnoaren gozoa... Eliza dorrea iruzkitan.

"Eni axuriak eman zazkiaten gizonen gatik eztiat hemen artaldia meskaatzeat utzi behar !"

Gero eta emekiago aintzinatzen zen. Etzuen untsa ikusten gehiago, lanbro bat begitan igaraiten zitzakon noiztenka. Eror, xuti, pusa, bazter, belauniko, aztaparka... Papoan erre bat, xotin gaixto batek hartu zuen.

Orai etzuen oihurik egiten. Etzuen gibelerat sogiten. Ametska ala iratzarririk zen etzakien. Beharritan xixtua, hildimaldoka bazoan. Nun zen ? Etzakien.

Ilargia lasterka lano artetan zabilan. Ardien begiek harargiak iduri, heien pindarrek xendra markatzen zuten hantxet harat.

Frantxuak minak sorhaitzen ari zitzazkola seinditu zuen. Gozo batek hartzen ari zuen.

"Oaixtian hotz zela..."

Iruzkitan etxaldea... Behiak iratze-meten ondoan ausnaharrian. Arrastiria. Axuri marrakak bordatik. Artaldea pentzeko seilla-ondorat bildurik. Hegoak arto zangoetan kantu... Sukaldean salda eltzetik ketan. Padera dantzan xamindeian.

Aments goxo batean sartu zen Frantxua.

Ze irriak ! Petan horrek baitzuen - gure gisa - edan-aldi bat eginik, orai irrintzinaka, irrintzinaka... Jes ! bana zer du hola irrintzinaka ?

Xakurra zen hurubiaka...

Frantxua orhoitu zen. Bainan ! etzen higitzen ahal. Argitua zen. Gogo zuen bakarrik iratzarrik, ia gorputza lo. Ond-ondoan ardi jualduna hari so : betarrosetan izotza. Ta xakurra, kañiskaz orai, ikustearekin nagusiak begiak ideki zituela.

"Xanpa fiña ! xanpa zamu !"

Mintzoa oraino bazuela ohartu zen Frantxua.

"Beha'uk xutitu...Xutitu beha'uk".

Xakurra erausiz jauzika. Oraino besoak higitzen ahal zituen, hargatik eskuak ez seinditzen. Buruan zuen indar guzi-guziaz manatzen zakon gorputzari :

"Jeik, jeik hadi !"

Ahuspeka jarri zen. Elurra bazter guzietarik. Nauka, aztaparka, belaunikatzen da : aintzinean elur-pizoina, gibebeat sogin eta...

"Bana ! Zedarritan pasatia'iz !".

Irupileko mazelak hor ezker, Harpeko erreka beheean. Iratzartzen ari zen, indarrik etzuen. Izar bakar ttipi bat zeruan bezalala, buruan gogo bat bakarrik : bizi zela. Emeki emeki ohartu zen eluhoso batean zela, haizeak xendran metatu elurtra izigarri batean. Xutitu eta elur-lurtari bizkarrak jarri zen.

"Ardiak ! ardiak hilen'tuk !"

Ikusten zituen hari so, marrakaz... Bederazka ezagutzen ziotuen...

"Adar bilurri hori Jeulek eman bildotsain umia. Beharri puntta xuria Ezpondak eman axuriain umia. Kuskuladuna Bettirik emainain umia..."

Goiti sogin eta : arranoak ! arranoak inguruka ! Heldu ziren Orbaizetako aldetik lerroan, heldu ta heldu, han Minasaroko oihan hegitik ateratzen ziren ttitta ttipi batzu, arranoak ! Bat bestearen ondotik heldu, arranoak. Hegalak zabalik, puntak idekirik eskuko erhiak bezala, lepoa bildurik, buruak ezker eskuin itzulikatuz... Korpak ikusten zezkeien. Hegal-zafalak egitean haize-azantza nabari. Begiak ikusten zezkeien.

Hegaztinek iruzki sortu berriaren urrea estaltzen zakoten parrean iragaitean. Barnea itzal ilunez ikaran Frantxuak ixtizurrietako mina berriz seinditu zuen. Zangotan hantitxurak...

"Ardiak ! ene ardiak !".

Aztaparka mendi paetari eluhoso bazterretik lotzen da. Xakurra kañiskaz harekin. Herremel eta herremel, hurrats bat eta hurrats bi, tira ta tira elurrean goiti. Arranoak beti.

Oraino ere tira. Xakurra batzutan bere gainerat etortzen zitzakon. Mila ta mila gauza gogorat : ama gaixoa, baratzea, errekan lehengo arraiñak, eskolako lagunak... holakoa, halakoa, irriz... pilotaka... elorri xuriaren liliak, apirila, Doniane, jendeak, emazteak, neskatoak... Tira, tira, tira. Eluhosoaren gaineratu eta : Geheztei ! hantxet urrun, behera ! Harsorgiako zokoa...

Papoa errea zuen, gorputza ezindua azkeneraino. Jeuleineko eta Lakoñoineko fontsak Zirritun...

"Han jendiak... supazterra... bidia... elurra".

Loeria ezti bat.

Bana ? "zirrizta hori ?"

Gehezteitik goiti halako "zirrizta" bat elurrean bazen. Hari gora jin eta Gohosaroko pekaldean beleak... Beleak ? Elurrean han beleak ttitta beltz hek ?

"Ez !!! Gizonak !". Gizonak palekin elur baztertzen.

"Heep !" eta xakurra xanpaz.

Gohosarotik gizonak irrintzinak.

"Heldu giela helduuu Frantxuaaa !!!".

Semeak

Irats
irailako irats urtsua
otsoaren babesa
sasitik sasira
herresten ari dela...

Urrezko sosegu latza
osto xorrotx hotxaren
gozo garratza...

Sasien artean
irats
ile gorri kuskuldu hotxak....
Ile xuriak zituen
atsoak
gorriak
semeek...

LEHENA

-haren beso zibilak ! -
urtxintxaren urratsak segituz
xoriekin xixtuka
sahats sakatsetik
abestuz
lerratua...

BIGARRENA sendoena

-haren irriño goxoa !-
amaren sabeleko ur epelak utzi-ta
kanpoko hatsa usaindu-ta
esku hutsik
iratsetatik itsasora
ixilka joana...
saretan saria
ala sarraskia
atxemaiteko ?

HIRUGARRENA suminena

-haren soaren su samina !-
sasiaren barnean kokoriko
basoko biziari so...
Hirugarrena
iratsetan murgildua
basoko maitasuna jastatuz....

Hirugarrenak

-haren soaren min beltza !-
adarrak kraskatuz ihes...
desertura
itsasora
joana ote ?
iratsetara
itzuliko ote ?

Behin batean

hirugarrenak
bestea
aixto xorrotxaz
iratsetan etzaneraziko ote ?

Ala atsoak

irats-ohetan
semearen matel hotzak
esku ximurretan hartuko ?

Halere atsoak

hirugarrenaren zainetan
ixuri zuen
bere bihotzeko sua.

Atsoak hiru seme

lehena eztizkoa
bigarrena gatxezkoa
hirugarrena suzkoa...

Irats

haurtxo baten
esku hetsia.



feed-back

edo ihardespena

Kordoba, udaberriko iguzkian beroa zen. Espaloiak ez balira mugikorrak izan, 1417.eko hiri zaharra XX.mendekoa zela erran zitezkeen (1417, Hegira-ko urtetegian, 2039, Kristauenean). Jendea hara eta huna, batzuek erlojuari so egiten : asti gutti egoiten, baina zergatik laister egin ! Allah-k behar zen astia emanen. Airean hitzak, txistek, irriak ; haurren oihuak... Hiriaren hatsa.

15ek jo ; auzo berrian, "Sâd" gizartearen building batean, 35 urteko gizon bat lurrian etzana zen. Bulegoan ez zen beste lagunik. Leiho-oholak betazal akituak bezala emeki-emeki jaustean, emakume böz ezti bat relaxaziorako kontseiluak ematen hasi. Lurrian, Nizam dena ahanzten entseatu... Azkenean, pausa bat ! Bost oren lan egin eta 40 minutuko bake hori ongi irabazi zuela pentsatuz pozik zegoen. Bere begiek ez zuten gehiago pantailetakako ingurutxo erotua ikusten... begiak hutsak zitzaizkion. Bere zangoak ere "ahantzi" zitzaizkion. Munduko gizarte guziek bezala, "Sâd"ek eguneroko planning-memorietan relaxaziozko ariketak sarrerazi zituen ; metodo horri esker seigarren oreneko lana gaitza izaten zen.

"Gogoan izan zure ezkerreko besoa... eskua lurrian duzu... Eskua astuntzen ari zaizu... astuntzen... tzen..." kantatzen zuen boz eztiak. Nizam-en gorputzak ariketa ezagutzen zuelakotz, bozari obeditzen zion. Nizam-en gogoak ariketa gehiegi ezagutzen zuelakotz, kezka ezin baztertu.

"Mahometanoek hogeit minutuko pausa dugu ; besteek mundu zabalean, hogeit ta hamar minutukoa... Gaur ez naiz erreki lasaituko."

Hogeit minutu iragan. Doinu ta boz eztiak pixkanaka ixildu. Kordobako mairu elizan (Kristauen denboran eliza nagusia zenean), laugarren programa esnatu : bideetako arroltzmatikoak ta karriketako espaloi mugikorrak gelditu. Nizam-en bulegoan, leiho oholak automatikoki igan eta gezi hori bat tronadurako xoko batean piztu, La Mecque-rako bidea erakutsiz. Nizam, hasperen batekin lurroiha! saindua zegoen xokora, geziaren azpira joan zen eta bertan belaunikatu. Hirian gaindi ozendu egin zen zilarrezko ezki!a baten soinua, Teheran-eko erakustokian zegoen ezki!a zahar batena.

Anartean, gerizarako robotak esnatu ta automuezzin eletronikoa hirugarren otoitza kantatzen hasi. Orduan, España guzian denak ahuspekatu.

Teheran-en ez zen otoitza egiteko tenorea, eta Iraneko Lendakaria, Reza Ayatollah, pentsaketan zegoen. Berri txar bat : Indiako gobernua (Irlandiarra) erori zela. Iranentzat, zaflako eder bat. Hori ezin onar. Bestalde, India ta Pakistaneko mahometanoak ezin ahantz. Anaiak anaia ezin hil. Zer egin ? Mikromizilak erabili behar... nondik ? Edo beste herri baten mizila batzu bahitu eta erabili... Hortarako abiategi gorde berri bat hobe. Rezaren eskuak terminaleko klamera hunkituz. Kordoban zer tenore zen jakin nahi zuen... Igurikatu behar.

Kordoban, automuezzina ixilduta, jendea zutitzen, bideetako arroltzmatikoak berriz sartzen, espaloi mugikorrak berriz ibiltzen ; etxe, bulego eta dendetan gezi argiak hiltzen. Ayatollah Nagusiaren potreta, hiru neurritan emana, une bat ageri ta itzali. Nizam, zutik jadanik, idazgailuko pantaila ttikian bere notak irakurtzen ari...

- Bakea zurekin, anaia !

Nizam-ek jauzi egin, atea lerratzen ez baitzuen entzun, eta "Zuekin ere bai, anaiak !" ihardestean ilundu zitzaion barnea. "Bakea !!!..." Baina ez zuen fitxik erran.

- Zer da zure azken hitza... anaia ?
 - Nere ustez, dena den ...
- Nizam-ek besoa luzatu.
- Allah-k mihi bat bai ta ere belarri eman digu, anaia. Hitz egin baino lehen bi aldiz entzuteko. Ikertu ditudan dokumentuen laburpen bat egin dizuet. Telememoriak zera dio :

Hogeigarren mendean, Basamortua deitzen dugun herrialdean, ba ziren Esqwal Herriko lau probintzi : Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia ta Araba. 1370.ean (kristauen urtetegian 1992.ean), Bizkaiko zentral nuklear batean zerbait gertatu zen omen. Ordinadoreak ez dit xehetasunik ematen ahal. Eta gero, Hego Eskwal Herria, "lurralde debekatua" ofizialki bilakatu zen.

- Hori ezin sinetsia ! erran zuen Sadegh-ek oihuka. Lurralde debekatuak lllgarren munduko gerlaren ondorioak direla badakigu.
- Hori ez bederen. 1992.ean debekatu zutela segur da.
- Eta arrazoia ? Zergatik debekatua den ez duzu bilatu ?
- Ez du balio. Anartean, Hirugarren Gerla gertatu, gutarrak eta etsaiak Españan sartu, dokumentu ainitz suntsitu. Ez baitakigu ere zer pasatu zen zentrala hartan. Zartatze ttiki bat ? Entsegu bat ? Baditake. Nik ere jakin nahi nuke. Gaurko egunean Irandarrek penintsula guzia daukagu bainan inor ez da Basamortuan sartzen. Airekorik ttikienak ere ez dira hango zerutik pasatzen. Hipotesis batzuek hango bizilagun guziak aspaldi hil direla diote ; besteek, bizilagunak han badirela... nolakoak ? Telememoriek diotenez, ikustera joan zirenak ez ziren handik itzuli... Zer pentsa ? Lurralde hil bat izanen da... Besterik ez.
- Entsea gaiten, androiden bidez...
- Hori bai.

Hemezortziak hamar gutitan. Berehala zen laugarren Otoitza. Nizam-ek bere buru ta eskuak jadanik garbituak zituen. Urak ez zion kendu buruko mina. Burua, erratera ausartatu ez zituen hitzez hantua zitzaien. Lasaitzeko, bere buruari hitz egin behar...

Bai, Erresuma handi bat altxatu dugu. Mahometano guziek ikurrin bera : ilargi xerra batekin. Bai, bederatzi izarrez apaindurik. Baietz. Ez - Mahometanoen kapitalismo itsuari edo desberdintasuneri uko egin behar. Allah-ren berdintasun ta anaitasunean bizi gara. Oraino. Kristauen fede-a galtzen ari, gurea, egunetik egunera azkar-ragoa. Pentsalari berriek Islama zintzoki berri-tu. Eta, orai, zer ? Ayatollah teknologoaren orde, gerla saildua mikromizilez apailatu nahi duen hori. Jakintsuna ote ? Bai, zera ! Ez da Allah-ren zerbitzaria, handikaria baizik...

Tronadurako gezia piztu zen : laugarren Otoitza egin behar.

Teheran-en, Reza Ayatollah pazientzia bilatzen ari... Klaberako "lot/buka" atzola hunkitu eta, "I" zenbakia jo. Koraneko aurkibidea pantaila ttikian agertzean, Reza-k kliski klaska ahul bat aditu zuen : Inprimagailuarena. Horria makinatik ateratzean, mezua irakurri zuen :

**BASAMORTUAN MIKROMIZILEN GELTOKIRIK EZIN ALTXA
HARA IGORRI DITUGUN ANDROIDEN BERRIRIK EZ**

NIZAM - EK

Reza-k horria hartu zuen, mahainean ezarri eta hari begira egon. Horria su eta kerik gabe kiskaltzen, hauts bilakatzen, airatzen, itzaltzen...

Etxebartarrak

Eulien kidekoak dira eta emeak ziztatzen ditu gizaki eta aberekiak, gero odola xurgatzen dietela. Zuberoan, bereziki Basaburuan, etxebartarrak deitzen dira.

Nunbait hor Etxebarko bideak Ligitik datorrena mozten duen gunean, lapar hesiz erdi gorderiko organbidexka batean, zegoen beribila. Alabaina, Etxebarkoa zen Maitena, eta zer balioko zukeen bidean han hara joateak hortxe bertan toki hain apain eta atseginik ba zaukatelarik.

Txit berriki elkarrekilatatuak ziren, Larraneko eliza pestetan eginak zituzketen ezagutzak, eta juntatzen ziren aldiro, besarkada tinko eta iraunkor batzuez bestelako denbora gehiena ba zoakien kondatzen eta behatzen. Solasa ba zebilkien alege-raki haurtzaroko oroitzapenetarik, aitamekilako harreman neke-tsutan gaindi, orduko edozoin gauzetaz gogoeta banatzeraino. Geroari ere hunki herabe zenbait egiten zizkioten, nahikeria zutelarik egin ahala luzaz elkarrekin ibiltzea, araberako artarekin negurtzen zituztela hitzak eta leguntzen ikuspegiak.

- Larrañekoaz geroztik ainitz eta ainitz hitz egin dugu, zuk eta nik. Ba dakit zutaz asko, frangok dakiketena baitaere beste inori kondatu ez dukezuna. Nahiz ez dukeen nere dudak funts handirik, baitakit ez diezokela ekar ondoriorik gu bien arteko lokarriari, aitortu behar dizut hasieratik kilikatzen nauen galderaxka hau: zenbat urte duzu, zuzen? Erran nahi dut ez naizela zure aurpegian adin bat finkatzera heltzen.

Maitenari irriño bat eskapi zitzaion ezpain gihartsuetarik, eta zumezko zare borobilean miratu zen mokanesa aurkitu nahiz; atera zuenean, labanda usain gozoz bete zen beribila, eta lagunari begiratzuz so zorrotz batez, torratu zuen berritan sudur peko larrua. Mokanesa bere lekuratzearekin hasi zen eleka.

- Ba dakizu nongo naizen? Etxebarko naizela. Ez zaude jakin gabe herri hontako jendei, komeni den bezala, etxebartarrak deritzaiela. Hori bera aski zenuke, delako galdeari erantzuntzat.

Hamasei urte nuen, lehendabiziko mutikoarekin ibiltzen hasi nintzenean. Sekula gogoratuko naiz: handia eta azkarra zen, ile garrail kiskur bat zeramala leporaino. Ilusioz hantuak abiatu ginen, hamabostean behin baizik ez genuelarik elkar ikusten, Parisen baitzen ikasle. Aste barnean, gutienez bi eskutitz bidaltzen nizkion, berdin hiru orri luzekoak, loa galduz aritzen nintzaiola guziak kondatzen, amentsak barne. Maite nuen. Erdi zoraturik pasa nuen hiruzpalau ilabete, bedats lehentsutik udako oporraldiraino.

Uztailaren hamarrean alde bat jin zen, azterketak eduki iraganik, ondoko ikasturterarte, hauzo hurbilean naukala beraz bolada luze batetarako. Ba genukeen orduan lokarri aberats hortaz neurrigabeki gozatzeko parada.

Ez ziren bada gauzak itxaron bezala joan, eta hain agi-ankor zirudien udaro hartarik hor daukat hortz artean kiretsa.

Nago oraino zergatik, elgarrekin egun batzu besterik ez genuela pasaturik, gure harremanetan ez zelarik deusik gertatu, gogoan ilundura bat jarri zitzaidan, guzia goibel nenkusalapatean, funtsezko arrazoinik gabe. Ordurarte, zinez egarri dena bezala ibilia nintzen, eta ez nerabilen gogoan iturrira heltza baizik, uraren freskoaz etengabe probetxatzeko; lehenbiziko urrupak ezinago ezti eta zapoetsu iduritu zitzaizkidan, baina beraiekin eraman zuten edangura sakon eta sutsu guziz gehiena. Gustatzen zitzaidan lagunarekin egotea orduak eta orduak, baina ments sendi nuen alaitasun eroa, ilusio osoa. Neure indar guziak gatik, jarraitzen nuen barnez eta bihotzez hits eta hilkor, hamaika duda zetozkidala maitasunaz, bizitzaz, herioaz... Horren joankor izan daiteke maitasuna? Ez dauka bada behetako eremurik amentsean eta ilusioan baizik! Zergatik dira aldiro hausten amentsaren oldarrak errealitatearen zorrotz harrian? Ala, ni, neu ote naiz hain uzkur, hauskor, etsikor? Galderak galdera gelditzen ziren bitartean, armamuak sare ugariz inguratzen ninduen.

Ohartzen nintzen guti edo aski nire egoeraz, bortxatzen nintzen barneko itzala agefiko itxuraz ekistatzera, nahiago nuen bestea ez zedin kontura ezertaz.

Konturatu zen aski laster. Eta aitortu behar izan nion. Ordutik hara gure lokarria pozoindatua izan zen, buruhauste huts bihurtzen zelarik. Biek badaezpada jarraiki nahi genuen, denbor arekin nekeak konponduko bailiran, gauzak sendotuz joan zitezkelako ustean. Ni, neure egoera hobetzera ari nintzen, ondorio ohargarririk ez zelarikan agertzen. Hura ni lagundu nahian, higatuz zonan, arras guti saristatuak zekuskala bere urratsak, eta azkenera nitarik zoakon nahigabeko indiferentziak azkarki min egiten ziola. Bederan aldetik joan behar izan genuen.

Luze zabalean kondatu dizut nire lehenbiziko amodioa. Nigan zabaldu zuen izugarriko leizea eta urteak pasa ditut gaintzen. Zazpi urte joanak ziren izar berri bati lotu nintzeneko, eta modu berdinean ehortzi behar izan nuen, bihotz dolamenik bizienean. Beste zazpi iragan dira, eta doi doia, gustoz nindagon zurekin....

Nork daki, delako euli haiei etxebartarrak deitu zaien Etxebarko neskati-ilen pare direlakotz egitatez, ala azken hauek zuten merezi haiekilako adaidegoa gogo-bihotzez.

Amoros gaixua

neskatxak amari

Ama,
papoan,
Amatxo badizut
larrupean gorderik...
Ez dakizut nola erran !

Ama,
lotan,
lotan naizelarik,
lo nagoelarik ere
jazarazten nizu.

Ama,
uste dizut...
Iduri zautazu
xori bat dudala
bularretan bizi.

Amatxo,
mokoa,
bere moko luzea
zintzurrean dizut;
kantan badakizut.

Ba tizu
Bi hegal,
Doi bat idekiak,
Biek luma finak,
Tinko orraztuak.

Amatxo ,
Ba tizut
Urrezko buru bi;
Ama,bi mertxika
dirudite biek.

Ama,
bi mertxika
ontzen ari tuzu,
mutturra xorrotxa,
goxoa axala.

Ama
gerria,
gerria ere
lilitzen hasia.
Ama, erradazu : zer da ?

Papoko habia

Gizon gaztearen kanta

Lagun ona,
erre ditzagun

Maitearen desira zoroena
kunpli nezakek,
haren gerriaz,
berritz eta beti,
doi bat gozatzeko.
Indar berriak
nabarritzen ditiat
zainetan daldaran.
Aski sendo nitakek
ene maitearen
gezur galantenak,
hezur eta luma,
bertan irensteko.
Bekaitzgorik eztuk
ene ezpainenan,
dena sinesten diat
nesken begietan.

Jon CASENAVE AMOROS GAIKUA Jon CASENAVE Amoros Gaixua

Azukrezko maitaleak

Gauaren luzean
ke urdin arin bat
dakarkit ahoan.
Zure hortzetara
hegal bat gogoan
joanen naiz urtzera.

Zure zintzurrian
lumazko elea.
Eta plazerretan,
odolen firfira,
hitzen isilean
maiz adigarria.

Zure ahurretan
eztia badago;
gauaren ahoan
jana goizerako.
Zure izerdian
urrea balego...

Gau joko

Arropak lurrera ari
hatsa ene baitan preso
ixilik zelebrazteko
biluziaren ezta

Aztapar ukaldi txar bat
zure bular larru goxoan
desio batez zulatzeko
planeten behako hutsa

Zure hortzak ausikika
izar gorri bat papoan
ortzeari itzultzeko
plazerraren oihartzuna

Eguerditako ekian
eskuak berexi dira
amodioaren gorputzak
bakardadean erreko

Andereinoa
mirailaren aurrean
Uraren hotsa

Haren irria
gerezi uzta baten
salataria

Bakardadetik
itzal bat haragitzen
haren zainetan

Maitaleari
esku maiteek larruak
banazka kentzen

Orroitzapena
minaren ohantzean
nabal zorrotza

Haren begiak
dohain zahar batzuen
oihartzunak

Uraren hotsa

Itsasoak iraultzan

Bertsuak eta poesia ez dira baitezpada bat. Badira poesia gabeko bertsuak. Badira bertsu gabeko poesiak. Bada ere bertsuakiko poesia.

1977-ko udazkenean, bertsu paperetan hasi nintzan, hau da bertsu idatzietan, poesiaren arrenkurarik gabe, helburu material soilez. Kexu nintzan ikusiz gure kazeta "bilinguek" zoin gaizki ateratzen zuten agertu nahi zuten euskara den gutia: zoko batean itsuski tinkatua, ezin irakurria. Bertsutan emanez geroz, zuri batzuen uztera bortxatuak ziren artetarik, eta irakurleentzat errexago gertatzen zen lana.

Pedagogiazko xede bat banuen ber denboran: halako mnemoteknia bat badu bertsuak, prosa baino hobeki hartzen du go-goak eta han koka daiteke. Ideiaren nabardurak ezabatzen ditu, eta bere kaltea badu horrek. Ordainez, ideiarekin ezinago xorrotera behartzen gaitu, horren inpaktoa azkartuz. Kantutan eman daiteke. Dena dela, betidanik maite du euskal jendeak, Joanes Etxeberri Ziburukoak zion bezala.. Harek zituen arrazoin berek bultzaturik hasi naiz.

Abertzale ideien eta borroken propagatzeko eta hedatzeko hasi naiz beraz, Euskal-Herriak dituen kazeta euskaldun eta "bilingue" gutiz gehienetan. Eta horietan bi urtez agertutako bertsu haboroak publikatu nituen 1980-eko larrazkenean, "Makila Gorria" delako liburuan.

Arte hortan, bertsu politiko soilez ase nintzan eta poesiari lotu. 1979-ko udan, hortara lerratzen hasi nintzan. Azken bihurgunea gertatu zaitan ETXAHUN IRURI hil zenean. Ehortzeta egunean, harat ezin joanez eskolan nengoela, "Euskaldunak" kazetako lagunek deitu ninduten, egunaren barnean zerbait idatzi behar niela xiberotar poetaren obraz.. Eta nik: nondik egin dezaket holakorik, egungo lan guztien artetik?

Pentsatu nuen dena bertsu zenbaitetan bildu behar nuela, oso laburki. Hain zuzen, eskolako paperen artean banuen, frantzes literaturaren antologia batean berriki kopiatua, Jean de SPONDE (Ezponda) Ziberotarraren soneto bat, frantzesez idatzia. Iduritu zaitan forma hori zela egokiena, ideia baten hitz gutitan biltzeko, herriak maite duen neurtitz moldean behintzat. Etxahunen obra hola nuen bildu hutsarte batez, eta ene sonetoa Baionarat igorri nuen arrats hartan.

Gero alan gelditu zaizkidan bi kezka. Bata, Ziberoan hutsune bat uzten zuela Etxahunek, hirugarren Etxahunik ez zaittekeala, baina agian idazle taldexka bat, eta hortan ene saila bete behar nuela nik ere. Bestea, zer den sonetoa, nondik eta nola datorkigun... Eta literaturan musurkan hasi nintzan, lehen bait lehen gauza premiatsuenak ikasi nahiz.

Egia da gaztaroan asko maite nuela literatura, bai euskalduna, bai bai frantzes, bai espainola ere. Euskaraz eta frantzesez bertsu idazten hasi nintzan baxoaren urtetan...

Baina gero, ingeniariartzako bidea hartu nuen, literaturatik urrunduz. Eta hartarik ondarra berezi minduen euskal politikak, ene lan-arte ta oporraldi gehixenak hartuz. Baina nolakoak diren biziaren itzuli-mitzuliak: hara non berriz nakarten lehenbiziko maitasunera.

Beraz 1980-eko udan, amodiozko poema sail bat idatzi nuen, eta Bilboko Aurrezki Kutxak eraturako Azkue sarian aurkeztu. Hor agertu ziren hamahiru lan, anonimoki, holako sari-keta guztietan ohi den bezala. Irabazi zuen Joseba SARRIONANDIA, Durangoko Bizkaitar gazteak. ETA-koa delakoan, Espainako gartzela ilun batean dago, gure laguntzaren zain. Eman diezogula osoa, lehen bait lehen aska dezaten !

Azkue sari hortan, aipamen berezia ukan nuen. Ikasten jarraitzeko adorea eman zidan. Zeren ikusi nuen alde batetik, bertsu arruntetarik urrunduz, poesian sartzen hasia nintzala, baina bestetik ene olerki sailetan batasun eta teknika gehiago irabazi behar nuela. Zeren poesia, ene ustez, denen gainetik ofiziale lana da, arta haundiz eta maitasunez orratua. Horri esker, zorte ona ukan dut 1981-eko Azkue Sarian "Denboraren Aroak" izeneko poema sortarekin. Garaitzari esker publikatuko da, eta horrek dit atsegin haundiena emaiten, ezen euskal idazle baten zat, oso neke da publikatu izatea.

Xalbador zenak zion bezala: ez du balio izkirioz artzea, orenak eta orenak aitzinean ditutzula, aho-mihizko ber lan motaren egiteko. Harek bi motetarik egiten zuen, eta ongi. Nik aho-mihizko ez baitut behar den ohiturarik ez odol-hotzik, ez naiz hasiko ere..

Eta izkirioz ez dut pretenditzen bertsulariak baino hobeki ari naizenik; zeren askotan, gisa guztiez ezin hobek botatzen dizkitzue harrigarriko ahapaldi batean. Ez da baitezpada hobe izkiriozko poesia, baina beste zerbait da, oinezko lasterrak eta bizikletazkoak desberdinak diren bezala.

Aho-mihizko formen idatziz erabiltzea ez zait eni zilegi, non ez den noiztenka, kobla zenbaitetan : iduri zait oinezkoaren aurka txirindularen hartzea dela, irabazteko segurtamenik gabe gainera. Eritzi personala, soil-soilik. Baina pentsatzen dutanaz geroz, erranik hobe.

Zer nahi gisaz ere, poesian aprendizau nauzue, beti eta gehiago ikasteko gogoz betea.

Poesia enetzat, droga bat da, biziaren edertzeko eta hobeki jasaiteko droga bat. Ber denboran, dopin bat da, borrokan ihardokitzeko eta garaitzeko. Beraz droga eta dopina, bietarik, eta orain ezin pasa naiz hori gabe.

Hona beraz 1980-eko Azkue sarian aurkeztutako "Itsasoak iraultzan" poema saila.

jean louis davant
it's a
circuity an
tongom to has down tish
chartea
begin
lase
jean louis davant
circuity an
tongom to has down tish
chartea
begin
lase

H980

itsasoak iraultzan

*Zenbaiten amore gatik
eta guztien fabore*

Touggourt-eko Dorretik

Eguzki zuriaz begiak urduri,
Urrungo legarren ibai legorrean
Nagozu bakarrik peko alforean
Ametsen dorretik so eta so zuri.

Erbeste zolako zelai gogorrean
Asmatzen zaituta odei tontor zuri,
Buruntzi burrunban elurrez ernari,
Iparraren lore,ortze idorrean?

Zeru-luhertzean ezer ez d'ageri.
Burdin-urmaelak ikaran,igeri,
Irakiz iretsi hegien uhina!

Baina bukatu zen mahuma haundia.
Itsasotik hara,su eta urdina
Andere Pirene,Ahuñamendia!

Otsogorri

- 1 - Basabürüko hegian
Orhiet'Ahüñamendi
Gure giganteen erdian
Bat, bi, hirur Otsogorri
- 2 - Zü lehenik Gaiñekoa,
Düdarik gabe handia,
Apal baitüzü ttipia,
Hirugerrena pekoa.
- 3 - Arren gainek'Otsogorri,
Zü egiazk'Otsogorri,
Balio dükezü Orhi
Goraz ere abantzüñi.
- 4 - Goratarzünez abantzü,
Ederrez lehen zira zü.
Orhi errege dadügü,
Zü erregiña zütügü.
- 5 - Otsogorri, Otsogorri,
Zure hegian azkorri,
Zure maxelan sokorri,
Aldepean nor egarri ?
- 6 - Ipar aldeko baxetan,
Zelüko hurak turrustan
Ehün kanako jauzitan
Arrokatik jauzten Pistan.
- 7 - Pistaren alde gaisetik,
Ttünttür baten ttünttürrean
Harespil bat biribilik
Soropila orlegian.
- 8 - Arbasoen hilerria,
Arimaren baratzea,
Hitarik hüllan zelia,
Heben denekiñ batzea.
- 9 - Zaharren eki saintia,
Artzainen lür sakratia,
Hortik, sentoralaria,
Besarkatzen dün mündia.
- 10 - Kürkürian sargia bat
Zuri zabal, Otsogorri.
Hantik sos Maidalenalat
Bazterrak zoin txorogarri!
- 11 - Portilloren haraintian,
Eguerdiz eki xurian,
Hüxtülan hegoa latza,
Eta üngürüz ügatza.
- 12 - Zü halaber, Otsogorri,
Bortien andere xuri,
Nafar aizeen mezülari,
Bi hegalez iparrari.
- 13 - Batetik Malta, Ardane,
Miraküülüzko arana.
Baxen ez bahiz herabe,
Sar beste mündian barna.
- 14 - Bestaldetik Harlüzia,
Bürüxieta, Zakia,
Etxahunen Igelua,
Begien bazkatzekoa.
- 15 - Erditan gure segetia,
Bide gabeko ibarra,
Hur bizien ütürria,
Misteriozko indarra.
- 16 - Han artzainen erresuma
Bihotzez maite düguna,
Baina heben dün arima
Hurtatzen daikün arana.
- 17 - Goian Utürrurdineta,
Hoinetan zilar tzapasta.
Lamiñak leizen behera
Hantik jaixten ümen dira.
- 18 - Udako ekitoltzetik
Goazan sendaren behera
Turrustaren saihetsetik
Oihanean freskatzera.

- 19 - Borroka beroz aserik
Mendien sabeliala
Utzültzen nün, desertütik
Edenek' oasiala.
- 20 - Ixilean ostoz ostoz
Xortaka itzal güzitik
Sartzen zaikü baketürük
Negüko elürre oro.
- 21 - Hau da gure gordagia,
Zelü lürren opiloa,
Xiberoaren erroa,
Lürreko paradüsia.
- 22 - Bagoen Katedralean
Ala hegiko argian
Ni heben Joseba baino
Ahalaz tobaritxago.
- 23 - Ardaneke soropila,
Otsogorriko maxela,
Arranoaren hegala
Et'aizearen txürüla,
- 24 - Ttünttürreko harrespila,
Turrustaren jaitx ahala
Eta bagoen itzala
Beti horra zaizt bistala.
- 25 - Otsogorri, Otsogorri,
Zoin llabür plazer hori!
Zütarik Pettarriala,
Ametsetik laniala!
- 26 - Udako ihes lekia,
Negü beltzeko lehia,
Leihotik zütüt ikusten
Zelian txütüt argitzen.
- 27 - Batean elürrez xuri,
Bestean urdinez bezti
Edo hegoetan gorri,
Bortüko andere Mari!
- 28 - Zure bistan, Otsogorri,
Nahi nüke zühür bizi,
Zure bistan, Otsogorri,
Zühürki bizia ützi.

• Holtzarte • negoko sgo •

Holtzarte

Emaztea, emaztea,
Etsai guztiz ospatua,
Gizonaren hutsunea,
Sako sakon urratua!

Edeneko ibai hura
Zerk egin du gutarteko
Leize, Zur'erdibitzeko
Nitan ere arraildura?

Holtzarte horren gainetik
Zurubia bota nahiz
Piruño baten haritik
Beldurrez nor ote dabil?

Geologi harrigarri
Horrek ariman ezarri
Ispillu erdiratuan
Zer ote dut ikusiren?
Nola buztin'abuztuan
Dena erdiro nihauren
Barreneko aurpegia
Baina zertaz egarria?

Zola zolan ur txirripa
Gorde baten murmurika
Osto ferreka zilarrez
Itxaropenaren bila.

Pareten gartzelatik at
Badago ibar zabal bat
Eta itsasora doa.
Emaztea itsasoa!

Emaztea, emaztea,
Itsaso muga gabea,
Bake guztiz nahitua,
Bihotz sakon zabaldua,
Gure aurpegi bestea,
Gure hutsunen betea!

itsasoa

Ekitoltzean opa, hor zaude baketsu,
Larru legun, uhin-gabe ta gori batean,
Eguzkiaren musu garbi'aski zaizu
Baina haren distira behar'zu betean.

Eta ni, legorreko gizon, bakan natorkizu
Iluna, ez jakina, itxaron gaberik,
Arraun oker batean ura urraturik,
Argiaren ordainez burua dena su.

Uholdeak orduan sagailoen kaldan
Astindurik narabii ur beroen maldan,
Naietan ontzi hordi, zuk desjabeturik.

Galernaren zilborrak, azken zirimolan,
Ondartzara bota nau eta baketurik
Nago, zure indarraz orain txaranbelan.

Indar eme, emankorra,
Zutan daukat iturria
Ta helburu gurgarria,
Ene ametsen alorra.

Gizonkia, uste duk amodiozk'obran
Haizela nagusia. Ohart hadi arren,
Mariñela, zein ttipi haizen galernaren
Begiak hartzen hauen zirimola hortan.

Pentsa zein bakuna den hire oldar hori
Eta soila ontzia. Aldiz mila margo,
Uhin, olde, dirdiraz aberats azpiko
Mundu sakona, mila ñabarduraz jori.

Joairak errespetuz harturik ertzean,
Haren altxorrez dituk sareak betetzen.
Ekaitzaren hegitik portura heltzean,
Haren ortzadarraz duk leihorra hezetzen.

Zuhurtu nahi denak, Ûlysek bezala
Itsasoaren lotsa eduki dezala.

Uharterea

ITSASOAK

002021j

Itsasoko banintz sortu,
Haren uholdean sartu
Nintzateke, uren askatzeko.
Lurreko bainaiz gertatu,
Nehor ez bedi engaina,
Ezin izan naiz arraina.
Baina eme gabe, bizi gabe
Litzateke mundu gaina.

Artzan-hora ez da otso,
Ur gezala ez da goxo.
Nehor ezin izan ber denboran
Mariñel eta itsaso.
Ahal banaiz humanista,
Neholaz ez feminista.
Ez nuke nahi gizateria
Bizi dadien erdizka.

Ezin da itsasturia
Bizi gduka gorrian
Edo itsaso maitetik bazter,
Hor baitauka iturria.
Begi urdin-berdeen bistan
Nor ez da sendi artista?
Hetarik urrun ez nuke nahi
Bizi hau bizi erdizka.

IGORTZE

Itsasoa, itsasoa,
Lurraren gero beroa,
Hi gabe gure mundua ez dun
Neholaz ere osoa.

ITZULTZE

Itsasoa, maite haunat
Baina uren lotsa diñat.
Bake zuzenezko arraun oldez
Etortzen nun hire ganat.

Hartarik urrun nago
Bainan onts'asma dirot
Ene ametsen mugan.

Izar bat, izar bi
Azkorritz itzali
Odei baten farrangan.

Hego haize gorrian
Hegien lerro xuria,
Marfilezko dentela.

Maxelaren behera
Aihen morko ederra
Ta pin'oihan epela.

Larrain hersitik landa
Bi tontor zabalak
Eta okolu borobila.

Zola-zolako maldan
Baratze izkutua
Bi palmondo azkarren
Artean.

Ibarraren behera
Han itsaso bazterra.
Hau da ene uharte
Gordea.
Besteek sogiten diote
Bainan ez dute ikusten.

Ugardean dut aurkitzen
Esnea ta eztia,
Ardoa ta ogia,
Oliba ta ozpina
Ere bai, ta gaztaina
Ta basa
Larrosa
Baten zaia ta gona
Gorri ezin erranak.

Korsega horren makira
Usu ihes egin niro
Ez banu zure beldurra,
Irriskuaren itsaso.

Zure begiak

Maitearen begiak, ispillu biziak,
Nihaurenen dirdiran otoi ezti bitez,
Haien distiran egon ez nadien tente.
Emaztekien soa, gure kontzientzia.

Andrea maite duen gizonak
Maitea du ahalaz eztitzen
Batu nahi baititu bihotzak
Ere.

Emaztea ihizgai duenak
Ilunpean hartzea bilatzen
Horri aski baitzaio gorputza
Bera.

Begien distira ez dezake
Jasan,
hartan
argi ta garbi ikus bailezake
bere aurpegia,
abere
baten
basa ihakina
erdi
gizaki
desegoki
eta gezurti
baten
itxura
itxusia.

Abereek inozenki
egiten duten hura
ez zitzaigu zilegi
erdizka, gezurrean,
baizik emaztearen
maitasun ederrean.
Bestela zergatikan
ilunbea ta lotsa?
Zergatik begiaren
ahalge ta beldurra ?

Arren,
arrak,
baldin emaztekoa
maite badugu,
osoki eta egiaz
maita dezagun
begiz-begi,
argi garbiz.

Haren
begien
distiran
lirainik,
abere
larruaz
eta basaingeruaren
gezurraz
biluz
gaitezen.

Maitearen begiak, ispillu biziak,
Nihaurenen distiran otoi ezti bitez,
Haien distiran egon ez nadien tente.
Zure maitasunean dut inozentzia.

Serenada

Emakumea maite dukan gizonkia,
Utzirik Minotauoren bortxakeria,
Kortesian har ezak Occitaniako
Trubadurren bidea, ez zaik doluturen,
Kantoreak bederen baitituk onduko.

Horrela poesia
eta amaztekoa
bi bider aberastu
zituen kortesiak.

Behin ukan ez zuen
entzuleen ohorea
gau hartan hartu zuen
olerkari pobreak

Behin bazen Parisen
dama gazte eder bat.
Senar ona bazuen,
aberatsa gainera.
Kortea egiten zion
kantari pobre batek.
Gau batez etorri zen
ilargi betean
damaren leiho pera
eta gitarragaz
berriz kantatu zion
ezti ta kartsuki.
Azkenean senarrak
asperturik handik
ohildu nahi zuen
amorante gaixoa
bezain hastiroa.
Baina damak erran zion:
adiskide ona,
otoi bego bakean,
serenada urririk
kantatu baitigu
eta horri eskerrak
gozatu baititut
ohore ederrenak
zeronek eskainiak.

Eta senarrak bete
usu ahazten bide
zituen eginbide

Gozoak. Serenada
ez omen da galdua
oraino Erriberan.

Emaztedun garenok
aberats izan gabe
gure fortuna dugun
estima eta lagunt
serenada etxean
kanta baitezakegu
pixuntzia burutik
behera ukan gabe.

emakumeen loreak

Euskalduntsen ederra
Zazpi loretakoa
Maitaleen arauera.

Gizona baldin bahaiz,
Xarpotxa ta morkoa,
Larrosa ta sagarra.

Matxoa baldin bahaiz,
Asunaren mingarra.

Pottoka bahaiz,
Ote lilia.
Astoa bahaiz,
Kardu lilia.

Edozein abereri
kapar eta elorri
Arantzaz ugaria
Baina lorez urria.

Nork bere izaria
Xuxen du ezarria.

Gizonki maitatzea,
Zuhurtzian sartzea.

Euskalduntsaren ederra,
Maitalearen arauera.

Izpiriturik badugu,
Toki legorren artean
Artzain-lorea mirets dirogu
Arkaitzen bakardadean.

Bihotz bat aurki dirogu
Liliaren gorputzean,
Ta izpiritu argi bat
Emakumeen bihotzean.

Iparraldeko erdaran
korte jakintzaz josita
Mintzatu zen, Margarita;
Zure kantore Nafarra.

Euskaraz ote mutua
Emazteen izpiritua ?
Eta gure hizkuntza maitean
al da ezin laudatua ?

Arimarik badutenentz
Emakumeek, zalantza zen.
Izpiriturik Euskal-Herrian
oraino zaie ukatzen.

Amodioa euskaraz
Kanta ez dezakegia,
Arkanjeluen gisara,
Ez bada, oso nagia?

Emakumea euskaraz
Kanta ez dezakegia,
Beste herrien gisara,
Arima et'aragia?

Ala herri donadoan
Ama, birjina, gelari
Sehi eta sukaldari
Egon behar du zokoan?

Mutil zaharrez betea
Emakumerik gabea,
Herri hau ezin da hola bizi,
Ez ar eta ez emea.

Gizonak badu teknikaz
Lur osoa menperatu,
emakumeak du oro
Xotilki zibilisatu.

Lurra teknikaz idorra,
Hotza, motza, sorra, gorra,
Basa urguluz mozkorra,
Bonba batez da izorra
Et'esperantzaz agorra.

Teknika hutsaren botza
Aski entzun da, zorrotza.
Ezti bedi arraren adarra
Ta mintza berriz bihotza.

Mintza barneko argia,
Funtsezko entelegia,
Zeinek baitu argitzen guztien
arima et'aragia.

Arima du aragitzen,
Gorputza du arimatzen.
Itsu ta mando gure indarrak,
ez baditu arrimatzen.

Euskalduntsaren ederra,
Zokotik zaite atera
Barnetik duzun indar gordea
Ez dadin egon alferra.

Gorputza

Ene itsasoa ta ene uhartea
Gorputz et'arima da,ber-ber emaztea.
Lehena mila bider dut goraipatua.
Bestea zergatik da ezin kantatua?

Zure begiak
izar argiak,
guztia zeru
zola leinuruz
berde-urdinak.
Zure biloak
odei harroak
ta basaihenak,
ta zur'ezpainak
ezin erranak.
Zure besoak
bago basoak,
gaizo maitale
honen babesle.
Haien erdian
zure bularrak
dira eperrak
mendi hegian
bezain ederrak.
Zure gerria
da mandolina
bezain eztia
ta txirribika
ez da hain fina.
Zure bi anakak
berriz gitarra
bezain azkarrak.
Azpi sendoak
arku ondoak.
Zango arinak
zutabe finak.

Coi ta pea sotila, erdia papuna,
Hirur tontor mazela puxantez aztuna,
Borobila,betea,desiren erpiña,
Emaztegoa hor da zinez erregiña.

Amodiozko lore, aho maitalea,
Gorputz et'arimaren ateka gordea,
Larrosa gorria,
Ezpainez joria,
Opar'idekia,
Botzez dantzaria,
Txorabiatzen naizu maite zaitudanez,
Haboro ezin erran,ez bada laztanez.

Emaztearen gorputza oso maitatua
Kantatu behar zaitut merezi duzun lez
Baina zure aurpean nagozu beldurrez
Enetzako baitzara guztiz sakratua.

Zoritxarrez hortik pasa bekatua:
Historiaren barna zenbat izan zara
Saldua,zapaldua,joa, bortxatua,
Ta nitan azkar daukat ar tzarren adarra.

Lotsaz beterik bainaiz, ezin dirot erran
Inozenki,ederki,nahi nuken eran,
Lehen Adamek nola zaituen ikusten.

Nere hutsa maizegi baiterauzut uzten,
Barka zadazu otoi lotsa eta hotza,
Begi,bihotz,adimen,asmu,hitzen motza.

Erizka

Oraino ezin zaitut kantatu osoki
Hargatik egin zaitut erdi oneski,
Jende onak ez ditzen hortaz eskandala
Gure jansenismoa ez baita makala.
Euskadin badago
Ezin erran asko:
Gauza haundiago
Ta hitz gutiago.
Halere oro nahas ez dezagula.

erdi

Ez ditzagun bat egin Eros eta porno,
Uste zaharrez hortan gaude oraino.
Emazteen gorputzean ez dago zikinik,
Gure baitan da zerbait erditik eginik,
Gerrarenzalea,
Baliatzalea,
Pazentzi gabea
Bai ta herabea.
Salba Eros, burutik ondo gaudeno.

hizka

Euskaldunak ez duke aholku beharrik
Bainan Eros euskarak du arrotzurik,
Detxepare, Oihenart, Bilintzez geroztik
Amaia ta Mikel,
Lurdes eta Lete,
Bestalde hainbeste
Ahazten dut ote
Eginbide ederra dutenak bete.....

Zorionez Eros da ezin errosia,
Zoritxarrez da oso merkea.
Beharrik amodioz nago egosia,
Hargatik erraitea zait oso nekea.
Ez dira gailenak
Ene hastapenak.
Hobeak dirate
Agian hurrenak.
Hitz hauek ez dituzket araiñ azkenak.

Kantaturenko zaitut, gogoko emazte,
Kantaturenko zaitut trebatu arte
Bai ta gero berriro, ahal bezain ongi
Ene bihotzaren ardu eta ogi
Begien gozoa,
Eskuen betea,
Ametsen atea,
Asmuen urzoa,
Adamen mirarizko lagun maitea.

Nahiz ez daitekean lur hontan Edenik
Beti mugitzen gaitu ezin edenak
Geroan ditugula egun ederrenak.
Baina boztutzen nuzu elgar eridenik
Munduko bidean
Ni zure aldean
Miretsirik nabil
Arantzen artetik.
Eba gabe Adamek ez du bakerik.

Poesia

Baratze izkutu hortako morkoak
Zuretzat dirate oneski eskatzen
Ditutzun aldikal,atea zabalik
Dukezu, larrosen ezpainenk otoiztuz
Gainera sar zaiten,Jokonda dohatsu
Zenbaiten azpiko irriño batekin.

Baina
merezi
behar da
erleak
eztia
bezala.

Itsaso lanjeros hortako golkoak
Zuretzat dirate zerioski bilatzen
ditutzun aldikal,ontzia gerturik
Dukezu portuan,zerua usnatuz
Behar lez mariñel zuhurra zoriontsu,
Arraintzan usu du haizea berekin.

Baina
lan egin
behar da
Mariñel
onaren
gisara.

Hortako
Arrosaren zazpi gona gorriak
Zeronek asmatu behar ditutzu.
Arantzen atzetik.
Hortako
Itsasoko hiru naia gahuntsu
Goitu behar ditu itsasturiak
Ametsen ertzetik.

Baina hortako
Arrosa otoiztu
Et'arantza jasan
Behar duzu.
Baina hortako
Itsasotik edan
eta hartan urtu
Behar duzu.

Baina baina
irudikeria bat basa-mortuan lez
luhertzean ihes doakit itsasoa.
Baina baina
oasis galdu baten usain galdua lez
iresten dit arrosaren gorri gorria.

Desertuko kameluzain bat
baizik ez naiz
Babylonako baratze goren atean.
Kanaango menditar soil bat
Baizik ez naiz
Tyr eta Sidoneko portuen aurrean.

Ez beha poetari
zuk pentsatzen duzuna
gora gora baitio.

Ez beha poetari
zuk asmatzen duzuna
Hark oihusta baitiro.

Zuk ixil-ixilean
duzuna iskutua
jarten du gurpilean
eta mundu zabaletik
dabila segeretua.

Zure amets beroak
nonbait sua pitz diro
zeren buru xoroak
Horren zai daude gero!

Ez beha poetari
ameslari huts horri
petrolik baduguno.
Ez da eskas oraino
eta geroan ere
beste zerbait badate
nuklearra eta
bestela nik dakita
eguzkia,
ilargia...
Beti zerbait badate:
ezin geldi "le progrès" !

Ixil bedi poeta
bai laster ixil bedi
poeta xoro hori!

Bai zera...
Zuek autopistak
zarete utopistak!

Badakizu laguna
zu zarela poeta
zeren aragiaren
xoko gorde batean
mintzo zaizun botz hura
min bizi bitzi hura
utopiaz betea
zentzu ona dukezu.
Lehengo, egungo ta
biharkoen mintzoa
arimaren oihua
munduaren erantzuna
alderantziz ez bada
zu baitan xertatua
ezin dezakezu ixilaraz
hura baita poeta
eta zutan baitago
betiko!

ez.
beha
poetari

ele

Bi ele orai
Elebitza
Euskara eta euskara
ele huskara.
Ele zahar,
ele berri, nobela
Nobel sari
eleder literario
Lysistratak ttapattan
ele goxo, aho bero
ele lein, ele xuri
üzkü zuri
ele xuritze.
Elaideek
elerran
elestatü
elekatü
ele zorrotz, ele zozo.
Bele bat, bele bi
elestari
elekari
kalakari
kaka larri
kua-kua nahasi
kartak erori.
Arren gazna zaharra
ixilik jan ezak
edo eüskaraz
axeriak entzün ez hezan.
Hütsa hits!

Erran berri . otsotiz.

Munduko gauzarik ederrena:
Ondarretako sirenen bularra
eguzkitan
askatua
balego.

Munduko gauzarik itsusiena:
Munduko gauzarik ederrena
itzalean
giltzatua
balitz.

Amodioa
baino
maitagarriagorik
ez da
emazte
maitagarria
baizik.

Emazte
maitagarria
baino
maitagarriagorik
ez da
maite den emaztea
baizik.

haren
amore gatik
emazte
maitagarria
uzten da
maitatu
gaberik.

Arren
maite
dugun
emaztea
maita
dezagun
maitagarriena
baita.

Aberria
beti emerria:
auzitegiko matrona bulartsua.
Ernalgoa bezain ugari
gure aberri saldoa:
zazpi Musa ñapur
eta haien babesle saildu
bi makarela:
dantzari beltzarana,
migantza titi lodia,
zezena bezain ozena
ta mannequin-de-Paris
ahuntz eihar titi luzea,
oilarra bezain zakarra.
Bederatziak antzu,
Euskal-herria izorra,
Euskaldun, adardun.

Ezinaren
izena
Euskadiren
izanak.

Izanaren
ezina
Euskaldunen
izenak.

Izenaren
izana
Euskotarren
ezinak.

Gure kirola
nazionala
pelota
de goma.

Gure kirola
herrikoa
pilota
gomazkoa.

herritar baten balada

Ene herria ez da herria,
 Hemen batzuek hala diote.
 Ametsa ote Nabarrerria?
 Xabier, Amaiur, Iñigo, Olite,
 Santxo guztiak, Leire ta Biana,
 Axular, orria, Noain, denak ametsak!
 Arbasoak ez ziren hain onak,
 Baskonetarik salbatu gaitu
 Bisigot eta Franken babesak,
 Beste buztanik ote du gatu
 Horrek?

Ene herria ez da herria,
 Frantzian ere hala diote.
 Otsozelaian dago harria
 Harek omen du betitik bete
 Kulturaz eta gales gizonaz.
 Sarrazenoak edo Englesak
 Dira hemengo beste aztarnak,
 Et'Espainatik salbatu gaitu
 Ama onaren goiko babesak.
 Beste buztanik ote du gatu
 Horrek?

Ene herria es da herria,
 Espainan ere ala diote.
 Gaztelerazko dira Herria,
 Zeruko Argia, Etxahun, Lete,
 Iparragirre, Anaitasuna.
 Nahiz Cristianoz garen trukesak,
 Biziki maite gaitu Espainak.
 Euskara ere salbatu digu
 Erregearen goiko babesak.
 Beste buztanik ote du gatu
 Horrek?

IGORTZE

Ene herria, laboraria,
 Arrotzentako baratze berde.
 Ene herria, langileria,
 Euskaldunentzat dena kez bete.
 Hau da emazte bat izorratu
 Dena.

ITZULTZE:

Beste buztanik ote du gatu
 Horrek?
 Buru buztanik al du populu
 Honek?
 Gure harria, ama-lurra da,
 Ezin saldua.
 Gure herria, itsasoa da,
 Beti birjina.

ilargi berriak

urte hartan etorri zen
 Bazko baino lehen uda.
 Martirak berpiztu ziren
 Ekaineko azkorrian.
 Arraultz opila jan zuten
 Aitamekin sukaldean.
 Laster Praka Irabarna
 Komentuan sartu zen
 Arantzazun alabaina,
 Eta Pasaiko portuan
 Euskaraz ikasi zuen
 Musika Herzog Enrique
 Jaun ospetsu horrek ere.
 Eta hona miraria
 Nola dugun etorria:

Bakea, emazte,
 Bakea zurekin
 Egingenko dit.
 Ilargi zaharretako ilunbe luzetan,
 Zein guduka lazgarriak gure lurretan!
 Zeruko sua harturik,
 Hartaz burdina landurik,
 Noren aurka,
 Nork ote orain badaki?
 Noren alde,
 Inork orain ez daki...
 Azken batean,
 Ezin bestean,
 Zuri atea dardoaz bortxatu nizun,
 Zuri bai gerla irabazi nizun
 Zoritxarrez
 Pyrrus honek!

Bi nigarren artetik
 Artoa baino haundiago
 Hitzeman zenidan gazta.
 Egin bedi zure nahia
 Elgean bezala ohean ere
 Amen!

Ez amen
 ez birjinen
 ez puten
 ez besteen ahotik
 holako agintzarik
 ez sinets
 ez onets.

Etxean artoa mehe,
 Baina gaztarik batere.
 Ai,ei, gaizo ni
 Eta gaizo zu,
 ene lagun tristanta.
 Gerlari baten indar mandoa,
 ametsen amets antzua!

Ni,ni,ni,...Nini!
 Niri hire besoak,elgerako.
 Niri hire sabela,oherako.
 Bere gelaria behar din gerlariak,
 Senar duenak,Jauna badin,Allah Jainkoa!
 Ez hakiena gauza soil eta arrunt hau;
 Aberatsak din hazten abereak hazten diozkan sehia,
 Esnea ohera ekarten dion neskatoa.
 Etxe oneko etxekandere egin hintudan,
 Ez haunat usu zanpatzen,ilean behin doi-doia...
 Estima zan arren,hik jabe ona dun!

Andere Amaia bera,
 biziaren Ama-Lurra,
 Jabe On Goiko egin nuen,
 Ar bihurtu nuen,
 Suzko dardo batez armaturik,
 Ortzi,Jupiter,Deus!

Baina zure bihotz mina,
 urzo gorri,ene lurretarik ihes
 urrungo zeruetara
 ihintz bila,
 nongo hedoi beltzetara
 itzal eske.

Esku laster zu soroan
 baina sukaldean ezpainak motx,
 ohean bularrak xorrotx,
 atx,gibel aitzineak hotx...

Antzu ene indarrak,
 hau dinagu idortea.
 Eihartzen haritz ondoak,
 hil-zorian artzan-hora,
 agortu iturriñoa.

Gure karlosak ostatuz ostatu
 jo hara,jo hona.
 Gure mutxurdinak gerla gorrian,
 beti fransezex.
 Etxe ondarra jan behar diküzie,
 laster ospitalialako gütützü
 tristant eli bat bezala.

Orain aski da,
 bai aski gerla.
 Ez zaitut,maitea,haboro setiaturen,
 hertsaturen,bortxaturen,zapaturen.
 Ez gudua, maitasuna,
 Burdinazko dardoa sura botaturik,
 olibatze adar bat txitxukatu dizut,
 eskulpitu,
 adelatu.
 Hona edalontzi hau,
 ori sagardoaz beterik
 bakearen izenean,
 harrazu eta edan otoi.

Hola mintzatu zen gizona
 1977garrena zelako urtean,
 ilargi berrietako lehenean.
 Sukaldetik baratzera,
 saltegitik lantegira
 hegalez urzo xuria:
 Jakin duxuia berria?

Euskal-Herriko emakumeen biltzarra
 akelarren egin zen
 ilargi xuritan:
 berrehun mila emazte
 ta neskatila gazte,
 neskatxunak eta neskatixeak eta neskatxak kandatu gabe.
 Gizonkien ikuspegitik askaturik,
 arren nahikeriatik biluzirik,
 larru gorri zauden,
 larru zuri,hori edo beltz,
 denak ederrak,
 oro garbiak
 Eba guztiak.

Goiko arren ordezkari zenbait
 Madriletik etorri zen laster
 eta Parisetik noizbait,
 apal-apalik,
 ustekeriez ontutsik eta atorrak,
 arrosa korda lepoan,
 sagardo kopa eskuan,
 bakearen eske.

Ez ziren ez ministro,ez deputatu, ez senatore,
 are gutiago prefet ez gobernadore..
 Jatorrak ziren,xuxenak,langileak,
 auzo elkarateek aukeratuak,
 gizon pollitak gainera.

Gaua zen eta
 goxo zen eta
 bularrak librean airos,
 sabelak hegoan uros
 Hondarribiko ondartzan
 eta Hendaiako plaian,
 Ekaineko ilargitan
 emazteak fandangotan...

Halere gizon pollitak
ez zituzten izorratu,
ez zankardoxka bortxatu
sabelean punpeka
guztiek lerro-lerroka..
Bakea zieten deklaratu.

Tratu bat finki egin zen.
Hau zuen puntu lehena
eta halaber azkena:
emaztea zazpi amorioz
maitatuko du gizonak,
hau ber gisan emazteak,
baldin merezi badu,
hortan eta guztietan
elgarren bete baitaude,
biak berdin dignitatez
eta ere eskubidez.

Hargatik emazteari
haurren ekartzea beti
humerik nahi badu:
nolaz daiteke bestela?
Ordainez emakumeen Foruak
Araudi gisan berriturik
eta puska bat emendaturik
bistan dena,
berpiztu zituzten.

Amnisti osoa eta orokorra
gizonei eman zieten
aitzineko bekatuak barkatu
arkeriari ez berriz lotzekotan.
Iraultza bat egin zuten
guztiek elgarrekin
Euskal-Herria libratuz.

Bat Ama-Lur, azpikoa
eta Jabe On, goikoa,
zerua eta lurra,
Alpha eta Amaia.
Etorri zen berriz ihintza,
emetu zen lura,
lilitu arrosa.

Bernat Etxepareko zena
saindu egingo zuten,
emazteen fabore ta defentsan
idatzi zuenaren omenez,
amorioz egin zien ongia gatik
-lehenbiziko saindu arra,
eta ez agian bakarra,
Jon Doni Bernat Etxepareko-
oilarra izan ez balitz,
goi arra izan ez balitz.

Beraz emakumismoaren profeta,
emaztegoaren igarle ar bezala
zuten goraipatu
harri gorrizko irudi batean.
Geroztik haren Salmoak
deboziora abesten dira
afal ondoan
sagardotegian.

Betiereko bakea
Iruinean izenpeturik
laster Gabriel Aresti
et Jon Doni Mirande
euskal heterodoxoen
elehuskera batuan
gazteek oihustatu zuten
herriko eliz'atean.

Aste beteko jaialdia
ospatu zen lur osoan.
Zazpigarrenean, pausatzeko,
besta egin gau guztian.
Izarren soinu ixila,
bihotzen dantza geldia
eta zahar gazteen jauziak!

Berrogei gauetz, euria eztiki
ortzirik ez harririk gabe.
Berrogei egunez, pausordua arraheinki,
lotsarik ez ahalgerik gabe.

Orain ez dago nausirik
ez eta harriko jaunik.
Artoak zazpi buru,
ardiak zazpi axuri,
behiak zazpi xahal.
Zazpi bihotzekin haurrak.
Bizian zazpi aldiz iraultza
gerlarikan gabe
ilargi berrietan.

Eskerrak abestu beti.
Biziaren Amaitari,
Goiko eta Pekoari,
Eta zorionak orori,

ILARGI
BERRIAK

Halabiz.

Jean Louis DAVANT

berriz. Dorrera

Urte hartan etorri zen
Bazkotik landa negua.
Udaminaren lekua
Usu digu horrek hartzen.

Amets ederra galdu zait
Goiz azkorrian nolabait.
Berriz nago desertuan
Esperantzaz agortua.

Beti hor daukat, Holtzarte
Bezain sakon, urradura
Samin baten erredura,
Mende batek ezin bete.

Bainan esperantza gabe
Touggourt-eko dorre hartara
Esperantza etorri arte
Hatsalbo, begiak errerik
Iganen naiz berriz ikaran
Betiko mendien bilari
Eta eki zuriz betea,
Goi hura eginik alminar,
Botako dut ene deiadar
Sakon, zorrotz, etengabea.

Manex Hiriart-Urruty apezaren
lau gutun
Piarres Broussain adiskideari

Piarres Broussain euskaltzaina hilez geroz (27 - 04 -1920 , 60 urte ezbaian , beren gordailuan gorderik egonak ziren haren paperak agertu dizkigularik andere Jenofa Broussain-Leroy Hazparneko auzapez zenaren alabak, beste Broussain-en adiskide askoren gutunak bezala, aurkitu ditugu hor Manex Hiriart-Urruty apezarenak.

J AKIN editorialak argitaratu hiru liburu-ei esker (Jakin liburu sorta : J.Hiriart-Urruty,2,3,4, Oñate 1972 aski untsa ezagutzen dugu hazpandar kasetalari aipatua. Baina, artikulu edo liburu batek ager ez ditzazken berri xehe asko salatuko digu menturaz adiskideari idatzi gutunak. Hori bera gertatzen zaigu hain xuxen Hiriart-Urruty-ren gutunekin. Zorigaitzez utzi dizkigun 29 gutunetarik 4 bakarrik dira osoki euskaraz emanak. Hauek ditugu hemen argitaratzen.

PIARRES XARRITON

(Larresorotik)

Hazilaren 4a 1894

Jauna,

Zerbaitek burura emaiten daut egun edo bihar etorriko zarela gure ikustera.

Egun heldu bazare, ongi etorri ! Arratsaldean ez bazaitut ikusten handik edo hemendik ageri, gutuna (?) huni har-araziko diot Ahazparneko bidea.

Ez nuke nahi, hunaz geroz, huts egin gaitzazun. Arren bihar, uria jauts-ahala ari ez balinbada, eguerdiko bazkaldurik, Itsasurat goazi, urte guziet bezala, gaztena, talo eta gasna jatera.

Ez beraz etor bihar arratsaldean hunat. Bertze egunetan ? Erran bezala. Biharkoaz bezainbatean, atsegin balinbazinu eztei horietan aurkitzea, zato, burdinbidez ala oinez, arratsalde erditsutako Itsasu Elizaldeko ostatura. Hango atearren aitzineko haiztegi hartan izanen da oroentzat toki.

Han edo hemen, zure hautura, ikus arte, Jauna.
Gelditzen naiz zure zerbitzari eta adiskide.

Manex Hiriart Urruty apeza.

Ondotikako hitza.

Bazinaki ongi zer egiter deraukuten egun hautan, gure «adiskide» direlako (!) batzuek nahi izan dakote gure «Eskualdun» gaixoari kendu bere izena eta izaitea. Kaskoindu behar omen gintazke, Jaun batzuen gogora ! Ez duzu sinesten ? Eta bizkitartean hola da: «Hay Bascos que merecen palos».

Nik hitz dautzut, Jauna, Jainkoaren eta adiskide onen laguntzarekin, begiratuko ditugula nor ere baitire xede hortako, eta hek, holako lanik egitetik.

Gutizia dutenak doazila kaskoinerat. Gu ez. Eta zu, Jauna, noiz arte bizi gogo zare «franchiman» debru hoiaren artean Xo ! Ez da ene egitekoa. Deus ere ez dut erran ez erranen gehiago.

Hunen hamabortzean zu hemendik urrun izanen zare naski. Bertzenaz erran nezakezu egun hartan ere ez zaitela etor. Ezteietan izanen naiz Itsasun, egiazko ezteietan orduan: Anaia bat ezkontzen zaut herri hartarat...

Eta banuen beldurra ! Azken hitzera naizeneko, huna non zautan heldu zure gutuna. Zer egin ? Gogotik egon nindake nihaur hemen, bertzeak arto jatera igorririk.

Bainan ez dezaket nere eginbideari uko egin: Bi multzotan goazi, handiak eta ttipiak berex. Ttipien bidatzea eta larderiatzea ene gain da, bereziki holako egunetan, zeren den ere ene ondokoa bidekari txarra. Ikusten dut garbiki, ez lakiokela gure Jaun Buruzagiari ontsa, edozoin estakuruz bihar nere lana bertzenzat utz baneza.

Barra beraz; otoi zato etzi asteartean tenor bereko edo goizago. Igurikiko zaitut eta ez nauzu baitezpada makurtuko. Oren bat eskola baizik ez dut hiruk eta erdietarik lauak eta erdi arte Arte labur hartako izanen da hemen nitaz bertzerik zurekin solas egitea atsegin ukanen duenik.

Edo ezinbertzea balinbaduzu, jo Itsasura bide nabarka bihar. Talo bat osorik begiratuko dugu. Nik ez dakot eneari min handirik eginen.

Bihar edo etzi arte. Oren bat eta erdi bederen Itsasun egonen gira. Gu hunat itzuli orduko ilun ondoa izanen da. Etzi etortzea dukezu hoberenik ahal bada.

Bihar ez balitz ateri, ez gintazke atera; bainan nola jakin hori goizetik xuxen ?...

Lehen gutuna :

1894. ko hazilaren 4ekoa, Hazparne Barrandegira igortzen dio Piarres Broussain-i Larresorotik. «Eskualduna»k argitaratzen hasi duen Ithurry apezaren euskal gramatikaren kariatat solastatzen hasi dira, Hazparne Barrandegiko mediku gaia eta Hazparne Joanesederraeneko apeza. Apeza eskolan sartua da Larresoron Mediku gaia aldiz bakantzetan. Elgar ikusi nahi lukete. Nahiz tipitan Larresoron ikasle egona den Broussain, 7-8 urte zituelarik, geroztik ahanzia duke urte guziz Larresorotik Itsasura, gaztena jatera, itzuli bat egiten ohi zutela ikasleek, Hiriart-Urruty-k itzuli horren berri emaiten dio.

Nahiz oraino «Jauna !» erraiten dion bere herritarrari, umore piska bat sartzeko bere solasean ez da batere herabe, gure apez gaztea, hala nola «kaskoin», «franchiman» edo «taloak» aipu dituenen. Ez zaio halere oraino euskara osoki xehatu : «zare», «zaitut», «Ahazparne», mintzo da, hazpandarrak beren artean ez bezala.

Larrosoron egina, urriaren 21ean, 1895ean

Jaun adiskide ona,

Sarako erretorak igorri daut egun hautan zure aiduru dagola. Ahal baduzu, ez huts egin joaitea; atsegin ukanen du zure ikustea eta zurekin ahal bezen luzaz solas egitea. Nik uste gabe eta nahi gabe, hitza jan dakot; amets bat bezala iragan zauzkit bi hilabete hauk. Azken egunak bereziki harat-hunat tarrapatan, ez dakit nola, galdu ditut, zuri azken aldikotz aurten, eskua tinkatu ere gabe, xede nuen bezala. Ez naiz atrebitzen «ajoutatzera» (hitz berri hori berritan entzuna dut; ezar ezazu berehala zure sakelako bertze heiekin)... hemen gaindi behar bazine iragan eta trik-aldi labur bat egiten ahal bazinu, edozoin tenorez, bainan eguerdi aitziñoan hobekienik, atsegin ginukeela guk ere, nik eta bertze zenbaitek hemen zure ikustea. Mintza gintazke xeheki gure lan hasi handiaz. Bainan zoin hurriki deramagun !...Beti bertze zerbeit egiteko...

Betiriñoaren berririk baduzuia ? Nik ez dut Zezena sistatu-eta, uste nuen zin edo min ximišta zerbeit agertuko zela; bainan Ezpeletan botatu zituen eiki azken uztarrak. Ez dakit; aiher niz bertze akul-aldiño baten emaiteko.....Zure arabera ?..... Ez dakit ordean nondik lot ..Banaki, banuke gutizia iharros-aldiño baten emaiteko pofolori, adarretik edo buztanetik. Ikusiko dugu.

Zuk, Jauna, bederen zuk ez duzu ahanzten «Eskualduna», ez eta haren aldakak.

Eskerrak zor daitzugu aurtengo Egunariarentzat; artoski berezirik igorri dauzkigutun ateraldi polftentzat. Pariseko berriak ere halaber helduko dauzkigutzu. Eta geroxago Eskual Herrian kokatuko ziren herrikoak ez dea hala ?

Zu zira gure irakurtzaile...eta laguntzaile bizpahiru hoberenatarik bat. Asma zazu bertzeak zer diren....arauera.

Barkatu ene ausartzia. Zure zerbitzari, Jauna eta, nere heinean, ahal guziaz adiskide.

Manex Hiriart Urruty apeza.

Bigarren gutuna :

1895.eko urriaren 21ekoa, lehena iduria dugu. Orai ere Broussain bakantzetan dago eta adiskidetan ikuska badabilke. Hiriart-Urruty-k dei egiten dio «Larresorotik» (sic). Aipu duen Sarako erretorra, Jean Ithurry, larresorotar apeza da. Horren gramatikaren argitalpena, da Hiriart-Urruty-k «Eskualdunear» hasia duen «Lan handia». Horren inguruan, Broussain-ek Parisetik igortzen dituen oharpen eta irazkinak dituzkete hiru adiskideek solasgai. Zorigaitzez, ondoko urtean, 1896.eko ekainaren 20ean zendu beharra zen gramatikalari jakintsun eta umila Eta, gramatikaren argitalpenak luzatuko du 1920. arte.

«Betiriño» nor den ez dugu ikusten «Piarres » Broussain bera ? Menturaz ?.

«Eskualduna» ren delako «egunaria» berriz astekari euskaldunaren «Almanaka» famatua besterik ez da : 1896.eko egunariak badakar, hain xuxen, artikulua eder bat, Pasteur eta Roux bi mediku handiez ari dena. Sinadurarik ez izanagatik, Piarres Broussainen euskarazko lehen artikulua dateke

Ohargarri zaigu ere, alde batetik, «Jaun adiskide ona ! » erraiten diola Manex apezak oraikoan bere herritarrari eta bestetik Ithurry-ren ortografia darabilala, f, r, ñ, s, guziekin, mementokotz bederen. «Zare», kilako formen orde «Zira» hartzen du, Lapurditik Baxenabarrera buruz itzuliz.

Adichkide ona,

Bagoazi. Egunaria badaramagu...berantche hasten gira. Are zaluago gitzazkon lot alde orotarik. Ea ikus ichil ichila, alegia deus ez, hazilaren leheneko burura dezakeguneez, Lasserre-en ttirritteria txarrari aitzinduz... Ez dezala otoi deus jakin. Bego lo.

Bainan ez otoi, otoi lo egon zu. Bardin debalde duzu zure buru-berokeria: biltzarre, batzarre eta egundainoko amets eder guziak holako lan gorde apal (iduriz ahul) zerbeitetara beharko dira erori.

Jaunak doazila jaunekin elgarri agurka edo ausiki-ka. Zato zu langilekin lanerat, gizon bat balinbazira. Orok hala zirela uste dute ba, bainan nehork ez daki oraino. Egintzetarik da, nor nor den eta zer den, ageri, ez da hala ? Otoi beraz eta zinez ele alferrak utzirik, «Errabiaz» hitzemana daukuzun lantto hura. Ez luze ez jakintsunki. Solasa labor, garbi, argi.

Nola ohart dakioken zakur errabiatuari ? Zenbat irauten duen errabiak ? Nola lotzen den errabia jendeari ? Zertarik lotzen den ? Hatsetik ? Hagunetik ? Hagunak larrua edo soinekoak hunkitzea aski den ? Ala odolera sartu behar den ?

Zer egin ausikia denean ? Norat joan ? Aztietarat ? Noiz medikurat ? Pariserat noiz ? Han oro sendatzen direnetz ? Eta holako ...« Vous connaissez le type de lecteur, si personne.»

«De six à dix pages de ce papier-ci. «Otoi berehala. Jar zite, lot lanari. Lotuz geroz, uzteak emanen derauzkitzu lanak. Ikusiko duzu ...

Bizpahiru ditxo bitzi, tartalkeria, ohiko edo egungo hazpandarkeria, irriz urrazteko zenbeit, eztazkitzu ? Ai bazi-nazki ! «De l'inédit» ahal bada.

Beste hainbertze errezeta edo osasunari doazkon kontseilu: Gelak nola atxik. Jateko, edateko, soineko, nik dakita zer ?

Oi, zu bezala mediku banintz eta arrantier, donado zahar eta eskuara zuk bezala maite, Eskual-Herriko zer guziekin !

Hola da ordean lur hau: ahal lukenak ezto nahi. Nahi lukenak eztezake.

Ea, erna hortik.....

Zure kitzikari.....(alferretan ?)

Manex Hiriart Urruty apeza.

Hirugarren gutuna :

1903.eko hazilaren 1ekoak, berezitasun bat badauka Broussain-ek, Azkue eta Ithurry-zenak zerabilaten «s» letrari uko egiten dio Hiriart-Urruty-k eta berriz «ch» sartzen du, haren orde, ongi azpimarraturik «berantche», «ichil-ichila». Batasuna ez dago eginik, gure kasko tzarrekin !

«Lasserre» Baionako liburutegi bat zen, bere euskaldun «egunaria» argitaratzen zuena Dirudienez «Eskualdunaren» egunariekin ari ziren zeingehiagoka. Bere «umearentzat» laguntza eske heldu zaio beraz, Hiriart-Urruty Broussain-i.

LAU GUTUN Piarres BROUSSAIN-i

Manex HIRIART-URRUTY

LAU GUTUN

LAU GUTUN

(larrosorotik)

Hazilaren 5a 1903

Adiskide ona,

Zu !....Erran gogo ez dena eta kasik erran behar ez dena, jali araz zinio. Beharrik badakit ez zerabiltzala, beste frango bezala, jakin goseak. Sudurra luze baino beroago duzula bihotza ba dakit.

Horra zertako, atxiki behar ditudanak atxikiz, erranen dautzutan laburzki hor...hitz labur on horien igortzalearekin ukan dudala mokokaldi bat, min handi egin dautana zortzi bat egunez. Urgulutsuia zirela diozu zuk. Zu. Gaizoa ! Deus ez zira beste zombaiten aldian.

Hau banakiin puska bat bazela. Ez ordian hoinbeste. Baina oraikoak aldia egin du. Joan da. Nere federik hoberean bi hitz igorri nazkon, beharrenak hunkituz, «Eskualduna»ren xokoak miatu balinbaituzu ez baitut erraiterik zertaz, iragan eguetako ateraldi ...«lerrakor» batzuez.

Orotako handienetarik biga, guziz bat: (irrintzina=hennissement de la femme violée... Loti edo nik dakit noren burutikako perttolikeria), Donapaleoko joan-jinaren xehetasunetan ziren. Eta nola ene eskuietarik iragana baitzen mintzaldi hori, eta arte eskasez hala hala igorria bainiin, behako bat doi doi hegier emanik, barnia miatu gabe, niri zela zaudan ene buruiaren garbitzia.

Izariz mintzatu nitzaio, ustez. Luzexko ba, hasian hasi, bainintiin beste arrengura tñpi batzu ere. Baia ba ! Ez dautzut erranen zer eta nola ihardetsi dautan.

Pentsa ! Nihauerek ere aldi bat baizik ez dut irakurtu, eta joan da berehala surat, erretzeko hobia baitzen. Burutik behar du ukan boltaka, giza gaixoak : Erran ere badaut, asko ele makurren artetik, baditakela, orenen buruiari «kintze bat» badiin.

Ni hiltzen baniz eta lan huni buruz harekin uztartzen bazira egun batez, orroituren zira huntaz.

Bego. Ihardetsi nakon ez hotz ez motz, baina labur eta gizonki ahalaz, buru-bihotzek elgar zaukatela. «Sans rancune» emana baitzaundan, halako «irri hotz» bere gisako batekin (arrazoina du Irrihotz sinatzeko, alafede baietz !); ihardetsi nakon: «Sans rancune oui, mais pas sans tristesse». Eta gero hamar bat lerro, ahal bezen xuxen eta sarkor: ez nakola sekulan gehiago hutsik altxatuko; ginozin aitzina lanari, nahi baziin, zoin gure alde. Igortzen zaitanak eskuztatuko nintiila, deus erran gabe, iduri ziztautan bezala, eta berak galdatau edo onetsi bezala. Esku eta esku eta fini...

Nindagon ondorioari. Ja ikusi dukezu Lekorneko errientari eman dakon sistako berria. Ezin egona.

Geroztik igorri dait «Orotarik» eta bizpahiru berrixka on; eta barnian karta hau,.... ez gaizki.

Bi egun espres luzaturik, igorri dakot ene karta, hitz hunekin, orotara dagona «Merci».

Hortan gira. Ukanen du briden beharra gure pottokak. Bizkitartian zerbait onik ere badu segur; eta miletan nahiago dut holako buru bat, zeiharka ere onerat itzulia, ezenez gaixtorat. Non geldi litake ? Pereka dezagun ile alde, baina soka labur atxikiz eta zaldare beroturik ahalaz ez emanez. Ferdetik ausarki; eta karrosan hirunazka ezar beti erdian. Halere ni beldur lanak emanen dauzkula. Agian ez !...Nik ez dut kitzikatuko...

Bestiaren ezkontza berriz ! Agian emazte ona izanen du. Bastart on bat buluzirik hobe, miliuner bat askoren kapetarekin baino. Bazinaki zoin gogoan dudan gaizo haur ona !... Jinkoak ez ahal du nahiko gaizki kausituia izan dadin.

Ontsa balinbadoazi, erran gabe doa, on litakela untzitik apur bat esku onetarat eror dadin sarrixago.

Dogdson ez ahal zauku samurtuko. Au ba !... Azala lodi dute holakoek; eta herritar zonbeit jostatuko dira. Bizitasun poxi bat ba, baina moldegaizkeriarik ez zaut iduri erakutsi dudala. Merexi zukeen.

«Errabia» joan da; dena berriz izkiriatu dut, bi aldetan eina zelakotz. Han hemenka zonbeit itzuli luze laburtu daitzut; taakoari xehaldiño bat eman, bi agoardient ihizfiorekin, pizteko. Zure lana atxiki dut, hitz batzuz mintzatzeko, aizina dukegun batez. «Zakur guziak «h»-rik gabe eman daitzut; «heldarra» eta «hezurrak» ez

Ah ! zer lan ona egin duzun. Hain xuxen hainbeste zakur errabiatu izan baita aurten; itoka irakurtuko dute.

Gibelaxko gira eta hurriki doa lana; bainan «Eskualduna»-ren saltzale berrier esker, salduko da...gasna bezala.

Milesker; eta aitzina beti ! Berririk balinbada tti-pi edo handi, otoi ez niri LOKAR.

Igandian igurikatzen dut Larrieu «Action Libérale»ko sekretarioa. Zaude, zaude, erranen dakot Hazparnen lehenik noren ate-mailua jo !...

Zu ziin bezalako behar zinen apeztu edo ezkondu: bat ez bestia ez baituzu inen. Barka ! Eskapatu zaut. Zerbeit jakinki eta...hitzik ez nautzun erran behar. Lerratu....luma. Barka ! Zure zorduru hartzeduru, ase-ta-gose beti.

Manex Hiriart Urruty

Ez dut ber-irakurtzeko arterik. Hutsak bete gogoz otoi zuhauk .

Laugarren gutuna :

1903. ko hazilaren 5ekoa, luzeena zaigu , eta aberatsena, jakinez geroz Jean Etchepare medikua (1877 - 1935), Larresoroko ikasle ohia, duela lehenik eta luzakienik aipu, Hiriart-Urruty apezak. «Ukanen du briden beharra gure pottokak...» diolarik Eskualduna-ren buruzagiak, badirudi aintzinetik sumatzen duela Etchepare-k 1910. an, «Buruchkak» bere liburu famatuarekin sortuko duen erauntsia.

«Bestiaren ezkontza» aldiz, Albert Constantin Atharratzeko medikuarena da. Biek adiskide zuten delako «gaizo haur ona», baina bereziki Broussain-ek ; abertzaletasunaren aldetik biak osoki bat baitzauden. Hazparneko deputatu auzapez eta deputatu Saint Martin Harriague-Morrochko okitua- ren alaba isila Rose Claire Amestoy hartu zuen emazte Constantin medikuak.

«Dodgson», Edward Spencer, ingeles euskaltzale jakintsuna ez zuen behin ere gogoko ukan Hiriart-Urruty-k (ikus Eskualduna, n° 377; 17-08-1894) eta oraikoa berriz « merexi zukeen» ausikia egiten dio

«Errabia» izenburuarekilako artikulua Almanakarentzat igorri zuen Broussain-ek 1904.eko Almanakan agertu zen (or. 28-34).

«L'Action Libérale et Populaire» izeneko mugimendua Parisen sortua zen 1901.ean, Jacques Piou katoliko aberatsaren inguruan Baionan Amédée Larrieu zuen bere gizona. Hiriart-Urruty aski aise bere alde bildu zuen eta horrela Eskualduna-ren administratzaile jarri zen Larrieu. Guichenné deputatua ere, Broussain-en koinata, talde hortan sartu zen, baina Broussain bera ez, sekula.

Gutun hau irakurri-ta, besteen ondotik, badirudi gero eta hurbilago direla elgarri gure bi hazpandarrak : ez da gehiago «Jaunik» aipu hemen, bakarrik «adiskide on !». Euskara bera ere lañatu da eta piska bat «laxatu» : «Zu ziin bezalako!», «ez baituzu inen» (eginen orde). Bizkitartean ez dugu beste horrelako gutunik aurkituko. Damurik ! Gure telefona mekanika hotzek ez duten bezalako grazia bazuten paper xahar horiek .

Piarres XARRITON

Piarres XARRITON

LAU GUTUN

Manex HIRIART-URRUTYren

Piarres BROUSSAIN

MANEX HIRIART-URRUTY

Mintzaje

PEILLEN Txomin

III. Hamazazpigarren mentea (XVII.s..)

Hamaseigerren mentean Züberoan protestante librü zonbait kartielian kurritzen hasi beitziren, Olorueko apezkupü mauletarek, Maitia edo de Maytie familiakoak popüliaren eskolatzia arrenküratüko dirade edo hobeki erran popüliaren kateximatziatz, hortakoz gure eüskaraiian lau librü agertüren dirade Tartasen " Ontsa hiltzeko bidia", Belapeyre ta Maitia-k egin katexima, kantika libria eta apezentako peredikü libria. Popüliian, apezek die eskola egiten eüskaraz eta latiz irakurtzen eta ezkibatzen erakusten baie ta ikasle hobener, eskolatzeko lati eta frantses haboro. Etxeko prima eta primiak eskolatzten, bai eta soldado, laborari, ofiziale izateko flaküxka diren seme gazteagoak. Eskola handiagoak Orthezen, Oloruen, Baionan egiten ahal dirade kolejiotan.

Beti, bost mintzaje badütügü Ziberoan, lau mintzatzen eta bat ezkibatzen baizik eztena, latia. Arlande Oihenart-maule-tarrak, modela emaiten deikü, Historia Librü lodi bat latiz ezkibatzen dü Notitia Utriusque Vasconiae...eta ber urteetan neskatila hanitxer eta emaztiari egin poema ejerrak eüskaraz Oihenarten gaztaroa neurthitzetan, bai eta Erran zaharrak ere, Eüska Herri güzitik bildürük.

Oihenartez eta Elizaz kanpo, pastoral trajedia eta asto laster egitia jarraikitzen da, bena ez lehen bezala Sainthiak eta profetak aipatzez, bena erregeen historiak: Clovis, Charlemagne, Saint-Louis.

Mila seiehün eta hogeigerren urtean (1620.an), frantses paperasse-ak ürrhats bat haboro emaiten dü kartielian Erregiak Züberoan eta Nafarroa Frantziarekin bat egitea deliberatzen dü ; bi herriek protestatzen die (ikus, Enregistrement de l'Edit d'union à Pau, opposition de la Navarre et de la Soule, 1620) Gotañen züberotarrak horren kuntre jeikitzen dira 1631.urtean.Geroztik familia orotan, izigarriko paper paketa hatzamaiten da frantseses, lege gizonen gizentzeko(bide batetan igaraiteko kontratü, behi erosteko kontratü) ; xikana eta injustizia Züberoan sartzten da, ezpeita berhala jelkiren.

ta eskola züberoan

mintzaje eta eskola ziberoan Txomin Peillen mintzaje eta eskola ziberoan Txomin Peillen

IV - Hamazortzigerren mentean (XVIII° s.)

Mente hortan, abantxü Herri orotan eskola bat izanen da, Martin Maister Ligiko erretrorrak erraiten deikü etxe orotan ba dela norbait irakurtzen eta euskaraz irakurtzen, bere libria "Jesu Kristen imitazionia" errejententako egiten diala, euskaraz eta frantsesez irakurtzen erakasten beitie, ükhen dezen zerbait haitü euskaraz, kateximatik kanpo.

Mente hortan, aberatsetarik eremütsetartino, jentiak oro euskaraz mintzatzen dirade, hanitx ere Pettarrean bearnesez eta Basabürian espanoles Jüsef Egiategi-ordüko euskaldün filosofoak dion bezala:

"Aspaldian dago errana, gizona dela hanbatetan gizon, noz la mintzo süerte beitaki; topa hüskaaldün menditarrak dakian Espaiñola, delako hen aizo, topa ere Ordokitarrak dakian Biarnesa edo zerbait frantsesetik, hantik biek dütükien abantailla gatik, bena beren artian ta etsaien eretzian, hüska xahia dezen mintza, da ene egarria."

(J.Eggiategy, Filosofo hüskaaldüna, 1780)

Hala, urte hetan lau mintzaje badütügü Züberoan, euskara, española, Bearnesa, frantsesa. Frantsesez Jean- Philippe de Bela-k frantsesez ezkiatzen zian, EÜskal Herriko historiaz Essai sur la noblesse des Basques, eta agertü ezten Histoire des Basques. Euskaraz Martin Maister-en Imitazionia, euskara ederrian agertzen da; pastorañla hainitx kopiutzen, emaiten eta ezkiatzen da, ordian, eta Züberoak dü ezagützen, apez etzen lehen euskaldun filosofoa, Jüsef Egiategi, esküz ezkiatü lau librü Utzi deizkünak: Filosofo hüskaaldüna, Bigerren libria, Musde Etxeberriren gogamenak, eta Aberastarün güzien giltzak; bena Elizak euskaraen politika bat balin bazian, Züberoako laikoek etzien horren axolik eta lau libria orano lo dirade Pariseko Bibliotheque Nationale-an.

V - Himeretzügarren mentean (XIX° s.)

Frantses Iraultza (Révolution française) denboran, prefetek zioen Basse-Pyrénées-tarik biarnes eta euskaraen galeraztea errejenten lehen lana zela...eta libertatearen izenean! Barère-k egin paperak dio :

eta eskola Ziberoan txomin peillen mintzaje Eta eskola ziberoan txomin Peillen mintzaje

Mintzaje eta eskola ziberoan Txomin Peillen Mintzaje eta eskola Ziberoan Txomin peillen

" Le fédéralisme et la superstition parlent bas-breton ; l'émigration et la haine de la république parlent allemand; la contre-révolution parle l'italien et le fanatisme parle basque; Brisons ces instruments de dommage et d'erreur".

(Rapport à la Convention du 8 Pluviôse an II)

Bena ondotik Napoleon lehenak eztü hainbeste pena hartüren, aberatsentako Lycée-ak egin ondoan, kasernen modelian, ezta eskola txipiez arrenküratüren, gerlakan sosak igorritz. Paueko paper zaharretarik jelkirik haboro badakigü, Etchecopar Mauleko sous-préfet-ak galthatürrik Pierre Bayaud batek ezkibatü zian " L'enseignement primaire en 1809:l'arrondissement de Mauleon". Paper hori Gure Herria-k eman zian 1951-ko uztail-agorrrila numeroan. Lege berriak galthatzen zian bezala, abantxü herri bakoixkal eskola errejenta bazen, bena laborari hurrek etzien batere arrahet inki jerraikitzen eta lazükeria horrek luzaz irainen dü:

"Les élèves à la campagne sont enlevés à l'école aussi tôt que les parents les trouvent assez forts pour les travaux de l'agriculture"

Errejent gazteena Ligi-koa da, hamabiurteetako haur zür-tza (orphelin) eta Ospitalepekoa zaharrena 73.urteeki. Ziberoako hogeitahamalau(34) errejentarik zortziek beste ofizio bat badie . Haurren etxeakoak, üsuenian, aldikatzen dirade, jatekoa eta ohea emaiteko; hamar errejentek eztakie ontsa frantsesa. Haboroenek eüs-kara, latia eta frantses amiñibat erakasten die:jenteen arabera aski da eta hamabost-ek hala egiten die; azkenik bost errejent hanitx eskolatürrik dirade, hala nola Medoc Santa Graziko errejenta.

Errejentak oro abantxü eüskaldün dirade. Artxu (Archu) Altzürrükütar "Inspecteur primaire " famatiak hentako " Eüs-kara - frantses gramatika" bat egin zian, bi mintzajeen batetan hobeki ikasteko, baieta " Alegia " edo fables librü bat ere eüs-karaz. Apezek ere eüs-karaz librü hanitx egin zien eta oraino etxe hanitxetan badira ordüko Uskaldünaren güthüna, Kantitak, katexin ma bai eta Ziberoako egunaria. Ezkibü hanitxetan errepublikaren ganako mesfidantza ageri da (egia da üskararen etsai izan zela phüntü batez), protes tanten eta hargin beltzen (francs-maçons) kuntreko ezkibü hanitx. Lan hetarik franko Intxauspe kalunjeak Omize Gaiñekoak eginik dirade. Frantsesez ezta deus baliozkorik ezkibatzen.

Eskola ziberoan txomin Peillen mintzaje eta eskola Ziberoan txomin Peillen mintzaje Eta

ATERRAITEA

Ahal denaren legeak ametsik ederrenak manatzen dituela hemen beste froga bat ba dugu. Behinkatasunetik noiztenkatasunera lerratzeko arriskua holako agerkari batek dakar. Baina huna bigarren zenbaki hau larrazken hastapeneko egun euritsu batez bururatua, esperantza eta libertatearen bide kurutze batean.

Jean OXARANGO-ni gure esker bizienak

makinez idaztea maketa, moldaketa, konduen atxekitzea, administrazioa, zabalketaren egileak dominika leon, ellcande dany-petre, isabel ajuariaguerra, jofa kaurte, lucien etxepare, maya bovard

MAIATZ.

15, Pontrique karrikan
64100 BAIONA
Tel. (59) 59.86.33
Banco de Bilbao
20007014004



Abonatzeko : urte batentzat (4 zenbaki) :

70 F edo 1300 ptas
sostengu gisa : 100 F edo 1800 ptas

Ebaki eta itzul iezaguzu hosto hau

Deitura :.....
Izena :.....
Helbidea :.....
.....
Posta zenbakia:.....
Hiria :.....
Herria :.....

Honako xehetasunak eman ditzakezu, nahi baduzu:
Adina:.....Lanbidea:.....
Telefono zenbakia:.....

"maiatz" agerkeriaren idazleak -abonatuak ez dituzten leone gain hartzen

Maiatz 15 Portrique harrikan
• 64100 • Baiona
Depôt legal de publication: 3-Trimestre 82. Edité
par l'association Maiatz. MJC de Palichon
Bayonne. responsable de publication: bovaré
82.ko Agorrila. Hiru hilabete haria: 20 frs 50 Pts
urte osoko harpi betza: 70 frs ala 1300 Pts
banco de bilbao 20007014004 • Imp: mogal de